

ATV  
3836

# DOTRIÑA LABURRA

AITA SANTU AMARGARREN PIO-C  
ERROMA-LURRETACO ELIZ-BARRUTIAI,  
BEECO MALLACOENTZAT  
AGUINDUTACO  
CRISTAU DOTRIÑAREN  
LENENGO ZATIA.

Vitori-co Gotzai jaunaren balmendua  
L. Mtar I-ec egindako  
EUSCAL ITZULERIA.



TOLOSAN—1907-garren urtean  
**EUSEBIO LOPEZ-EN** echean.



M - 11286  
R - 5452

ATV  
J 846

# DOTRIÑA LABURRA

AITA SANTU AMARGARREN PIO-C  
ERROMA-LURRETACO ELIZ-BARRUTIAL,  
BEECO MALLACOENTZAT AGUINDUTACO

CRISTAU DOTRIÑAREN  
LENENGO ZATIA.

Vitori-co Gotzai jaunaren baimendua



L. M-tar I-ec eguindaco  
EUSCAL ITZULERA.



TOLOSAN—1907-garren urtean  
**EUSEBIO LOPEZ-EN** echean.

Vitori-co Gotzai jaunac 1907-garren urteco Epaillaren 6-ean zintzoqui eusqueratua, ta utsic batere gabe, zegoala icusiric, ontzat eman zuan itzuler-au, ta bere eguelle Lopez Mendizabal-tar Isaac-i arguitaratzeko baimena eman zion.

Eguillearena da.

## OARQUERA.

Liburu ontan arguitaratzen da Aita Santuarena deritzayon *Dotriña laburra*, ta onen aurretic ipiñi ditugu, arrec da-carzquien bezela, *Urte guchico aurrentzat Lenengo Icasgayac*.

## Pietro Respighi, gure Ordeko Nagusi Cardenal jaunari

*Cardenal jauna:*

Erlijiyoari dagoquiona gaztechoai lenbaien eracutsi bearrac jarri gaitu Dotriñen bat arguitaratzera, onequin gure sinismen santonco gauzic errazenac azaldu, eta edozeiñ cristaui zuzen bizitzeco bear dituen eguiac eracusteco. Argatic, Italico Eliz-barrutietan zebiltzan dotriñ guziac arretaz beguiraturic, oniritzi zaigu, aldatze chiqui batzuequin, Piemonte, Liguri, Lonbardi, Emili ta Toscana-co Gotzayac, orain urte batzuec ezqueroz arturic zeucatena. Erroma-co Eliz-barrutian bezela, Erroma-ri dagozquion lurretan, bai icasteche, ta bai sendietan, dotriñ au erabiltea bear-bearrecoa izango da; eta uste guenduque beste elizetan ere berendu naico dute-la, guztiac eresi duten bezela, Italian bederic, gai batera eldu gaitezen.

Uste gozo onequin, biotz-biotzetic, Apostoloen Bedeinceaziyoa ematen dizugu.

Vaticano-tic 1905-eko Garagarrillaren 14-ean.

X-garren PIO AITAC.



Juan B. de Larreta

URTE GUCHICO AURRENZAT

*Azelam.*

DOTRIÑAREN LENENGO ICASGAYAC

*á D<sup>a</sup> Ascension Esheneste.*

*impof.* LENENGO BURUA

*Zarroco de Soranilla*

GURE FEDE SANTUCO EGUIRIC GARAYENAC

G.—*Gurutzearen señalea eguzu.*

E.—Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaſen.

G.—*Latiñez eguzu gurutzearen señalea.*

E.—In nōmine Patris et Filii et Sp̄ritus Sancti. Amen.

G.—*Gurutzearen señalea nola eguiten dezuz?*

E.—Onela: Gurutze santuaren † señaleagotic, gure † etsayetatic gorde gaitza-zu gure † Jaun ta Jaincoa. Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean. Alaſen.

G.—*Norc eguin zaitu?*

E.—Jaincoac eguin nau.

G.—*Zertaraco eguin zaitu Jaincoac?*

E.—Bera ezagutu, maitatu ta serbi dezadan munduan naizen artean, eta Beraz beste munduan beti goza dezadan, eguin nau Jaincoac.

G.—*Nor da Jaincoa?*

E.—Jaincoa guzizco izate bat da, zeru-lurren Eguille ta Jaun.

G.—*Jaincoa bacarra al da?*

E.—Bai, bacarra da Jaincoa.

G.—*Non dago Jaincoa?*

E.—Jaincoa zeruan, lurrean, eta toqui guzietan dago.

G.—*Guzia icusten al du Jaincoac?*

E.—Bai, guzia icusten du Jaincoac, baita gure adiquetac ere.

G.—*Jaincoa beti izan al da?*

E.—Jaincoa beti izan da, ta beti izango da, beticoa da-ta.

G.—*Jaincoac bai-aldu gorputzic gue bezela?*

E.—Jaincoac gorputzic eztu, espiritu garbi-garbia da-ta.

G.—*Zenbat persona dira Jaincoagan?*

E.—Iru person, eguij banacoac, dira Jaincoagan.

G.—*Nola deritzate jaincozco iru personac?*

E.—Jaincozco iru personac Aita, Semea ta Espiritu Santua deritzate.

G.—*Trinidad guztiz santuco personac beren artean berdiñac, edo berdiñezac ote dira?*

E.—Trinidad guziz santuco personac oso berdiñac dira, guztiac jaincozco izate edo naturaleza bat dutelaco.

G.—*Jaincozco iru personetatic nor  
eguin zan guizon?*

E.—Jaincozco iru personetatic biga-  
rrena eguin zan guizon, au da, Semea.

G.—*Jaincoaren Semea nola eguin zan  
guizon?*

E.—Jaincoaren Semea gue bezelaco  
gorputz eta anima bat artuaz eguin zan  
guizon, Maria Birjiñaren sabel oso gar-  
bian Espiritu Santuaren lanez.

G.—*Jaincoaren Seme guizon eguiña  
nola deritza?*

E.—Jaincoaren Seme guizon eguiña  
Jesucristo deritza.

G.—*Beraz Jesucristo nor da?*

E.—Jesucristo, Jaincoaren Seme gu-  
zon eguiña da.

G.—*Zergatic eguin zan guizon Jain-  
coaren Semea?*

E.—Gu salbatzeagatic eguin zan gui-  
zon Jaincoaren Semea.

G.—*Zer esan nai du gu salbatzeac?*

E.—Gu salbatzeac esan nai du, pecatu-  
tic eta infernutive gu ascatuaz, zeruko glo-  
ria gue irabaztea.

G.—*Zer atseguiñ dira zeruan?*

E.—Zeruko atseguiñac dira beti Jain-  
coa icusiaz, batere gaitzic gabe, ontasun  
guztiac izatea.

G.—*Nori ematen dio zerua Jaincoak?*

Jaincoac ematen die zerua saritzat, mundu ontan bera maitetzen ta serbitzen dutenai.

G.—*Zer sufritzen da infernuan?*

E.—Infernuan sufritzen da beti Jaincoa icusi gabe egon bearra, betico sua ta gaitz guzia. ontasunie batere gabe.

G.—*Zein dira infernura condenatuac?*

E.—Infernura condenatuac dira mundu ontan Jaincoa maitetu ta serbitu ez dutenac, eta pecatuaren damu gabe il ziranac.

G.—*Zer egin zuan Jesucristoc gu salbatzeagatic?*

E.—Jesucristo gurutzean il zan gu salbatzeagatic.

G.—*Ill ezqueroz piztu al zan Jesucristo?*

E.—Jesucristo ill ezqueroztic irugarren egunean piztu zan gloritsu ta garaile, berrioz ez iltzeco.

## BIGARREN BURUA

### CRISTAU DOTRIÑAREN ZATIRIC GARAYENAC

G.—*Zein dira cristau dotriñaren zatiric garayenac?*

E.—Cristau dotriñaren zatiric garayenac lau dira: Credoa, Pater nosterra, Mandamentuac, eta Sacramentuac.

G.—*Credoa esazu.*

E.—1.<sup>o</sup> Sinisten det Jainco Aita guzialdun zero ta lurraren Eguilleagan; 2.<sup>a</sup> eta bere Seme bacar, Jesucristo gure Jaunagan; 3.<sup>a</sup> Au sortu zan Espiritu Santuaren bidez, eta jayo zan Maria Birjiñagandic; 4.<sup>a</sup> Poncio Pilatosen mendean padezitu zuan; gurutziltzatua, illa ta obiratua izan zan; 5.<sup>a</sup> infernuetara jechi zan; irugarren egunean piztu zan illen artetic; 6.<sup>a</sup> zerura igo zan, eta eseriric dago Jainco guzialdunaren escuitic; 7.<sup>a</sup> andie etorrizo da bizi ta illac juzgatzera; 8.<sup>a</sup> sinisten det Espiritu Santuagān; 9.<sup>a</sup> Eliz catlico doitsua; Santuen alcartasuna; 10.<sup>a</sup> pecatuen barcaziyoa; 11.<sup>a</sup> araguiaren berpiztea; 12.<sup>o</sup> betico bizitza. Alasen.

G. *Pater nosterra eusqueraz esazu.*

E.—Zeruetan zauden gure Aita,  
1.<sup>o</sup> Santificatua izan bedi zure izena.  
2.<sup>a</sup> Betorquigu zure erreinoa.  
3.<sup>a</sup> Zure naya zeruan bezela lurrean  
eguin bedi.  
4.<sup>a</sup> Egunerooco gure ogua gaur iguzu;  
5.<sup>a</sup> Eta barca zaizquiigu zu gure zorrac,  
guc gueren zordunai barcatzen diegun  
bezela;  
6.<sup>a</sup> Eta ez gaitzazula tentaziyoan eror-  
tzen utzi;  
7.<sup>a</sup> Baizic ascatu gaitzazu gaitzetic. Alasen.

G.—*Latiñez Pater nosterra esazu.*

E.—Pater noster, qui es in cœlis,

1. Sanctificetur nomen túum.

2. Advéniat regnum túum.

3. Fiat voluntas túa, sicut in cœlo et in terra.

4. Panem nostrum quotidianum da nobis hódie;

5. Et dimitte nobis débita nostra, sicut et nos dimíttimus debitóribus nostris;

6. Et ne nos inducas in temptationem;

7. Sed libera nos a malo. Amen.

G.—*Pater nosterraz gañera ez al degu beste otoitzic?*

E.—Pater nosterraz gañera badegu oraindic AGUR MARIA, ta onequin agurtzen degu eta escatzen diogu Birjiña guziz santuari.

G.—*Esazu eusqueraz AGUR MARIA.*

E.—Agur, Maria, graziz betea: Jauna zurequin da, bedeincatua zera andrien artean, eta bedeincatua zure sabeleco frutu Jesus. Maria Santua, Jaincoaren ama, gu pecatarioegatic otoitz eguiuzu orain ta gure erio aldian. Alasen.

C.—*Latiñez AGUR MARIA esazu.*

E.—Ave, Maria, grátia plena, Dóminus tecum. Benedicta tu in muliéribus et benedictus fructus ventris túi, Jesus. Sancta María, Mater Dei, ora pro nobis peccató-

ribus, nunc et in hora mortis nostræ.  
Amen.

G.—*Esaten al degu otoitzen bat Trinidate guztiz Santuaren alabantzan?*

E.—Trinidad guztiz Santuaren alabantzan GLORIA esaten degu.

G.—*Esazu GLORIA eusqueraz.*

E.—Gloria izan beza Aitac, eta Semiac, eta Espiritu Santuac asieran zuten bezela, orain ta euntien euntietan. Alaſen.

G.—*Esazu gloria latiñez.*

E.—Glória Patri et Filio et Spíritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

G.—*Zenbat eta zein dira Jaincoaren aguinduac?*

E.—Jaincoaren aguinduac amar dira:

Ni naiz zure jabe Jaincoa:

1.<sup>º</sup> Nere aurrean beste Jaincoric izango ez dezu.

2.<sup>a</sup> Nere izena alperric aitatuco ez dezu.

3.<sup>a</sup> Jai eguna santificatzeaz oroi zaite.

4.<sup>a</sup> Aita eta ama onratu itzazu.

5.<sup>a</sup> Iñor ilco ez dezu.

6.<sup>a</sup> Araguizco pecatuz ez loitu.

7.<sup>a</sup> Ez ostu.

8.<sup>a</sup> Guezurrezco testimonioric ez jaso.

9.<sup>a</sup> Besteren emazteric ez nai izan.

10.<sup>a</sup> Besteren gauzen cutiziric ez izan.

G.—Zenbat eta zein dira Elizaren aguinduac?

E.—Elizaren aguinduac bost dira:

Lenengoa, Igande ta jai oso guztietan meza entzutea;

Bigarrena, Garizuman, lau aldietan, eta bijili aguinduetan barau eguitea: egun debecatuetan araguiric ez jatea;

Irugarrena, guchienez urtean bein confesatzea ta Pazco loratuan, edo Piztecoan bacoitzac bere Parroquian comulgatzea;

Laugarrena, Elizari zor zaizcan amarrrenac, oi dan bezela, ordaintzea;

Bosgarrena, Eztayic estalmen ospatzuz ez eguitea, Elizac eragotziric dauzcan aldietan, au da, Abenduaren aurrenecogandetic Erregueetaraño, ta Garizumaren lenengo egunetic Pazcoco zortzigarren eguneraño.

G.—Zenbat, eta zein dira Sacramentuac?

E.—Sacramentuac zazpi dira: Batayoa, Confirmaziyoa, Comuniyoa, Penitentzia, azquen Igortzitzea, apaizen Ordentzea, ta Ezcontza.

G.—Norci ipiñi zituen Sacramentu oyec?

E.—Jesucristo gure Jaunac ipiñi zituen Sacramentu oyec.

## IRUGARREN BURUA

FEDE, ESPERANTZ, CARIDADE TA CON-  
TRIZIOZCO EGUINTZAC.

G.—*Fedezco eguintz bat esazu.*

E.—Sinisten det Jaincozco iru persona berdin ta berezi Aita, Seme ta Espiritu Santu deritzatenetan Jainco bacar bat dala, egui-utsic-eziña dan Jaincoac berac Eliz santu catolicoari, ta onen bidez guri ere ala aguertu digulaco; sinisten det Jaincoaren Semea guizon eguin zala Espiritu Santuaren lanez Maria Birjiñ guziz garbiaren sabelean araguia ta guiz-anima artuaz; Au gugatic gurutze batean il zala; pizturic, zeruetara igo zala, eta andic etorrico dala munduaren azquenean bizi ta il guziac juzgatzena, onai betico gloria ta gaiztoai betico infernua emateco. Sinisten det gañera beragatic Eliz santuac sinisten ta eracusten duan guzia.

G.—*Esperantzazco eguintz bat esazu.*

E.—Nere Jauna, zu guzialduna ta guztiz on ta erruquitsua zeralaco, uste det Jesucristo gure salbalearen neque ta eriozco irabaziengatic betico bizitza emango didazula, zerorrec, zera bezin guziz zintzoa izanic, cristau on baten eguintzae

dituanari, ala aguir du diozulaco, nic zure graziz lagunduric eguitea asmo dedan bezala.

G.—*Caridadezco eguintz bat esazu.*

E.—Nere Jauna, biotz guziz eta gauza guziaz gañ maite zaitut guzizco ona ta chit osoa zeralaco, ta nayago det guzia galdu zu ofenditu baño, ta zureganaco naitasunagatic maite ditut gañera, ta maite nai ditut, nere burua bezela, nere urcoac.

G. *Contriziozco eguintz bat esazu.*

E.—Damu det, nere Jauna, ta atsecabe det biotz guztiz, zu ofenditu izana, zu azquen-gabeco ontasuna zeralaco, ta guziaz gain maite zaitudalaco; ta zure graziz aurrera pecaturic ez éguin, ta batez ere pecaturaco era errazac uzteco, asmoa artzen det.

G.—*Atriziozco ta contriziozco eguintz bat esazu.*

E.—Damu det, nere Jauna, ta atsecabe det biotz guziz Zu nic ofenditua, damu det infernua merezi ta zerua galdu nualaco; baña gueigo damu det, pecatu eguiñaz, nere Jainco, zu beziñ on ta aundia, ofenditu dedalaco. Zu ofenditu baño il nayago nuque, ta gueigo pecaturic ez eguiteco ta artaraco peligrozco bide guziac uzteco asmo sendoa artzen det.

G.—*Zer beste otoitzez agur eguiten ta deitzen diogu Birjiña guziz santuari?*

E.—*Agur eguiten ta eitzen diogu Birjiña guziz santuari Salve Regina requin.*

G.—*Esazu Salvea eusqueraz*

E.—*Agur, Erreguiña, erruquizeo Ama, bizitz, gozotasun eta gure esperantza. Agur, zuri deyez gaude Ebaren ume besterrituac. Zuganonz gaude antsiz, ta negarrez malcozco ibar ontan. Ea bada, gure Bitartecoa, zure begui cupicorrac guganonz itzuli itzazu. Eta besterri onen ondoren Jesus, zure sabeleco emaitz oneresia eracutsi zaiguzu. Erruquitsua! biotz biguña! Maria Birjin gozoa, erre-gutu zazu gure alde, Jaincoaren Ama doitsua, Cristoren aguinduen diña eguin gaitean. Alaſen.*

G.—*Salvea latiñez esazu.*

E.—*Salve, Regina, Mater misericordiae, vita, dulcedo et spes nostra, salve. Ad te clamamus exules filii Hevae. Ad te suspiramus gementes et flentes in hac lacrymarum valle. Eia ergo, advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte. Et Iesum, benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende. O clemens, o pia, o dulcis Virgo María!*

G.—*Nola agur eguiten ta deitzen diogu Ainguero gure zayari?*

E.—Agur eguiten ta deitzen diogu Ainguero gure zayari *Angele Dei-requin.*

G.—*ANGELE DEI eusqueraz esazu.*

E.—Jaunaren Aingueroa,  
Berac nere erruquiz,  
**Graziz**, mesede aundiz  
Ni zaitzeco autua:  
Goi-goyetaco arguiz  
Beti argui zadazu,  
Bide gaizto guzitic  
Ondo zaindu nazazu,  
Egun batez ez nadiñ  
Infernuan ondatu.

Alaſen.

G.—*ANGELE DEI latiñez esazu.*

E.—Angele Dei, qui custos es mei, me  
tibi commissum pietate superna, illumi-  
na, custodi, rege et gubernā. Amen.

G.—*Zer beste otoitz eguin oi dira cris-  
taben artean?*

E.—Cristaben artean eguin oi diran  
beste otoitzac dira: *Confiteor, Angelus,*  
eta *Requiem aeternam* illen alde.

G.—*Esazu eusqueraz Confiteor.*

E.—Ni pecataria confesatzen naitzayo  
Jainco guztiz aldunari, Maria Santu beti  
Birjiñari, Miguel ainguero santuari, Juan  
Bataile santuari, Pedro ta Paulo apostolo

santuai, santu guztiyai, eta zuri, Ait espirituala, pecatu eguin detala adiquetaz, itzez ta egitez, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa chit andiz Argatic erregutzen diot Maria Santu beti Birjiñari, Miguel ainguero santuari, Juan Bataile santuari, Pedro ta Paulo apostolo santuai, santu guztiyai, eta zuri, Ait espirituala, otoi deguiozutela nitzaz Jainco gure Jaunari. Alaſen.

G.—*Esazu CONFITEOR latiñez.*

E.—Confiteor Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper Virgini, beato Michaeli Archángelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis Apóstolis Petro et Paulo, ómnibus Sanctis et tibi, Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo et ópere; mea culpa, mea culpa, mea máxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archángelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apóstolos Petrum et Paulum, omnes Santos et te, Pater, orare pro me ad Dóminum Deum nostrum.

G.—*Esazu ANGELUS DÓMINI eusqueraz.*

E.—W. Jaunaren Ainguerauc Mariari berria ecarri zion.

R. Eta onen sabelean Espiritu Santua-ren lanez Jaincoaren Semea sortu zan. *Agur Maria... Maria santua.*

W. Ara emen Jaunaren mirabea.

R. Eguin bedi nigan zuc diozuna.

**Agur Maria... Maria santua.**

W. Jaunaren Semea guizon eguin zan.

R. Eta gure artean bizi izan zan. **Agur Maria... Maria santua.**

**G.—Esazu ANGELUS DOMINI latiñez.**

E.—W. Angelus Dómini nuntiavit Maríae.

R. Et concepit de Spíritu Sancto. **Ave María, etc.**

W. Ecce ancilla Dómini.

R. Fiat mihi secundum verbum tuum.

**Ave María, etc.**

W. Et Verbum caro factum est.

R. Et habitavit in nobis. **Ave María, etc.**

W. Ora pro nobis sancta Dei génitrix.

R. Ut digni efficiamur promissiónibus Christi.

### OREMUS.

Gratiam túam quæsumus, Dómine, méntibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognóvimus, per passionem ejus et crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dóminum nostrum. R. Amen.

**G.—Noiz otoitz eguin bear da ANGELUS DÓMINI requin?**

E.—ANGELUS DÓMINI requin otoiz  
eguin bear da goizean, eguerdian ta illu-  
nabarrean, artaraco ezquillac deitzen di-  
gutenean.

G.—*Garbitoquico anima bedeincatuen  
alde REQUIEM ÆTERNAM eusqueraz esazu.*

E.—Jauna emayezu betico atsedena, ta  
betico arguiac argui deguiela. Paquean  
atseden bezate. Alaſen.

G.—*REQUIEM ÆTERNAM latiñez esazu.*

E.—Requiem æternam dona eis, Dómi-  
ne; et lux perpétua luceat eis. Requies-  
cant in pace. Amen.

G.—*Zer beste otoitzic eguiten da gar-  
bitoquico animen alde?*

E.—Garbitoquico animen alde otoitz  
eguiten da ere **DE PROFUNDIS** eguin.

G.—*DE PROFUNDIS esazu.*

E.—De profundis clamavi ad te, Dó-  
mine: Dómine, exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendentes in vocem  
deprecationis meæ.

Si iniquitates observáveris, Dómine:  
Dómine, quis sustinebit?

Quia apud te propitiatio est: et propter  
legem túam sustinui te, Dómine.

Sustinuit ánima mea in verbo eius: et  
sperávit ánima mea in Dómino.

A custodia matutina usque ad noctem,  
speret Israel in Dómino.

Quia apud Dóminum misericordia: et  
copiosa apud eum redemptio.

Et ipse rédimet Israel, ex ómnibus ini-  
quitáribus eius.

Réquiem æternan, dona eis, Dómine.  
Et lux perpétua luceat eis.

---

# DOTRIÑA LABURRA

---

## LENENGO ZATIA

FEDECO EGUIRIC GARAYENAC.

---

## LENENGO BURUA

GURUTZE SANTUAREN SEÑALEA.

G.—*Cristau al zera?*

E.—Bai, Jaincoaren graziz cristau naiz.

G.—*Cristau izateac zer esan nai du?*

E.—Cristau izateac esan nai du Jesu-cristoren fede ta leguea artzea.

G.—*Nola eguiten da cristau?*

E.—Batayo santuaren bidez eguiten da cristau.

G.—*Cristau-señalea zer da?*

E.—Cristau-señalea gurutze santuaren señalea da.

G.—*Zenbat eratara eguiten du cristabac señale au?*

E.—Bi eratara eguiten du cristabac señale au.

G.—*Zein dira?*

E.—Ziñatzea ta santiguatzea.

G.—*Nola ziñatzen zera?*

E.—Ziñatzen naiz escuico aurrenen-  
go beatzez iru gurutze eguiñaz: beco-  
quian lenengoa, aboan bigarrena, ta bu-  
larretan irugarrena, gure Jabe Jaincoare-  
quin itzeguiñaz.

G.—*Zertaraco ziñatzen zera becoquian?*

E.—Becoquian ziñatzen naiz, gogo  
gaiztoetatic Jaincoac gorde nazan.

G.—*Zertaraco aboan?*

E.—Aboan ziñatzen naiz, itz gaiztoeta-  
tic Jaincoac gorde nazan.

G.—*Zertaraco bularretan?*

G.—Bularretan ziñatzen naiz eguite  
ta asmo gaiztoetatic Jaincoac gorde na-  
zan.

G.—*Nola eguiten dezu gurutzearen se-  
ñalea?*

E.—Gurutzearen señalea eguiten det  
escuico escua becoquira eramanic *Ait-  
taren* esanaz, guero bularretara *Semearen*  
esanaz, andic ezquer ta escuico sorbal-  
detara *Espiritu Santuaren* izenean esa-  
naz; eta azquenean. *Alassen.*

G.—*Gurutzearen señalea zergatic da  
cristau-señalea?*

E.—Gurutzearen señalea cristau-seña-  
le da cristau gueranoc fedegabiengandic  
bereizten gaitualaco.

G.—*Zer adirazten du gurutzearen señaleac?*

E.—Gurutzearen señaleac gure federatuco misterioric garayenac adirazten ditu.

G.—*Zein dira gure federatuco misterioric garayenac?*

E.—Gure federatuco misterioric garayenac dira bi: lenengoa, Jainkoaren batasun ta irutasuna; bigarrena, Jesucristo gure Jaunaren araguitze, pasio ta eriotza.

G.—*Zer esan nai du Jainkoaren batasunac?*

E.—Jainkoaren batasunac esan nai du Jainko bacar bat dala.

G.—*Zer esan nai du Jainkoaren Trinidadadeac?*

E.—Jainkoaren Trinidadadeac esan nai du Jainkoarengan iru persona berdin ta bereziak dirala: Aita, Semea, ta Espiritu Santua deritzatenac.

G.—*Adirazten al degu gurutze santuaren señalez Jainkoaren batasun ta Trinidadeco misteriyoa?*

E.—Gurutzearen señalez adirazten degu Jainkoaren batasun ta Trinidadeco misteriyoa; bada, izenean esanaz, Jainko bacar bat dala diogu; eta Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren diogunean, Jainko batean iru persona eguiz

**banacoac dirala aguertzen degu.**

**G.—Zer esan nai du Jesucristo gure Jaunaren araguitze, pasio ta eriotzac?**

**E.—Jesucristo gure Jainaren araguitze, pasio ta eriotzac esan nai du Jaincoaren Semea guizon eguin zala, padezitu zuala ta gurutze batean gu salbatzeagatik il zala.**

**G.—Gurutzearen señalez nola aguertzen degu Jesucristo gure Jaunaren araguitze, pasio ta eriozco misteriyoa?**

**E.—Jesucristoren araguitze, pasio ta eriozco misteriyoa aguertzen degu gurutzearen señalez, onec gogora dacarquigulako Jaincoaren Seme guizon eguiñac padezitu ta gurutze batean il zala.**

**G.—On al da gurutzearen señalea maiz eguitea?**

**E.—Gurutzearen señalea maiz eguitea chit on da, orrec fedea berotzeco, tentuac ayentzeco, ta Jaincoagandic esker asco iristeco indarra dualaco.**

**G.—Noiz litzaque on gurutzearen señalea eguitea?**

**E.—Gurutzearen señalea eguitea on litzaque: goizean oyetic jequitzean, gabaz lotaracoan eta gañera jate-edanen asieran; elizan sartze ta ateratzecoan; eta batez ere otoitzaren aurretic.**

## BIGARREN BURUA.

### JAINCOAREN BATASUN TA TRINIDADEA.

G.—*Iristen aldezu Jaincoaren iru person eguiż bereziyac Jainco bacar bat nola diran?*

E.—Ezin irichi guentzaquean misterio bat da au, Jaincoa azquenicgabea ta iricheziña dalaco; baña sinistu bear degun misteriyoa da, Jaincoac aguertu baitigu.

G.—*Nola deritza misterio oni?*

E.—Trinidade guztiz santuaren misteriyoa deritza.

G.—*Zer aditzen dezu TRINIDADE GUZTIZ SANTUAZ?*

E.—TRINIDADE GUZTIZ SANTUAZ aditzen det Jainco bat bacarra iru person eguiżqui berezietan: Aita, Semea, ta Espiritu Santua.

G.—*Zer esan nai du iru person eguiżqui bereziac izateac?*

E.—Esan nai du person bat ez dala bestea, edota, Aita ez dala Semea, Semea ez dala Espiritu Santua, ta Espiritu Santua ez dala Aita, ta ez ere Semea.

G.—*Trinidad guztiz santuco lenengo persona nor da?*

E.—Trinidad guztiz santuaren lenengo persona Aita da.

G.—*Nor da Trinidate guztiz santuaren bigarren persona?*

E.—Trinidad guztiz santuaren bigarren persona Semea da.

G.—*Nor da Trinidate guztiz santuaren irugarren persona?*

E.—Trinidad guztiz santuaren irugarren persona Espiritu Santua da.

G.—*Zergatic da Aita, Trinidate guztiz santuaren lenengo persona?*

E.—Aita Trinidate guztiz santuaren lenengo persona da, beste personengandic ez datorrelaco, ta beste bi personen asiera dalaco.

G.—*Semea zergatic da Trinidate guztiz santuaren bigarren persona?*

E.—Semea Trinidate guztiz santuaren bigarren persona da, Aitarengandic sortua dalaco.

G.—*Espiritu Santua zergatic da Trinidate guztiz santuaren irugarren persona?*

E.—Espiritu Santua Trinidate guztiz santuaren irugarren persona da, Aita ta Semeagandic datorrelaco.

G.—*Aita Jainco al da?*

E.—Bai, Aita Jainco da.

G.—*Semea, Jainco al da?*

E.—Bai, Semea Jainco da.

G.—*Espiritu Santua Jainco al da?*

E.—Bai, Espíritu Santua Jainco da.

G.—*Beraz persona bacoitza Jainco bada, iru persona ta iru Jainco izango ote dira?*

E.—Trinidad guztiz santuco iru personac ez dira iru Jainco, baizic Jainco bat.

G.—*Trinidad guztiz santuaren iru personac zergatic dira Jainco bacar bat?*

E.—Trinidad guztiz santuaren iru personac Jainco bacar bat dira, persona bacoitzac jaincozco izate bacar berbera dualaco.

G.—*Iru persona oyetatic zein da audiен, altsuen ta jaquintsuena?*

E.—Jaincozco iru personac irurac berdiñac dira: jaincozco izate berbera, almen berbera, jaquinduri berbera, ta ontasun berbera dutelaco.

G.—*Ez ote zan Aita, Seme ta Espiritu Santua baño lenagocoa?*

E.—Aita ez zan Seme ta Espiritu Santua baño lenagocoa, bada jaincozco iru personac berdin-berdin beticoac dira.

## IRUGARREN BURUA.

### JAINCO-SEMEAREN ARAGUITZEAZ.

G.—*Zer esan nai du ARAGUITZEAC?*

E.—ARAGUITZEAC esan nai du Trinidade guztiz santuaren bigarren persona, edota Jaincoaren Semea, guizon egun zala.

G.—*Nola egun zan guizon Jaincoaren Semea?*

E.—Jaincoaren Semea guizon egun zan gue degun bezelaco gorputz eta anima bat Maria Birjiñaren sabel garbian Espiritu Santuaren lanez artuaz.

G.—*Ta Jaincoaren Semeac, guizon eguiñaz, Jaincoaren izatea utzi al zuan?*

E.—Jaincoaren Semeac guizon egun zanean, Jaincoaren izateric etzuan utzi, baizic Jainco guelditzen zalaric asi zan eguizco guizon ere izaten.

G.—*Nola deritza Jaincoaren Seme guizon eguiñari?*

E.—Jaincoaren Seme guizon eguiñari Jesucristo deritza.

G.—*Beti izan al da Jesucristo?*

E.—Jesucristo, Jainco danez, beti izan da; guizon bezela, araguitzeco unean asi zan izaten.

G.—*Nor da Jesucristoren Aita?*

E.—Jesucristoren Aita, Betico Aita barric da; bada, Jainco danez, Trinidade guztiz santuco lenengo personagandic sortutaco Jaincoaren Semea berbera, izan zan sortua, guizon bezela, Espiritu Santuaren lanez Maria Birjiñaren sabel garbian.

G.—*Zergatic eguin zan guizon Jaincoaren Semea?*

E.—Gu salbatzeagatic eguin zan guizon Jaincoaren Semea.

G.—*Ta ezin salbatu al ote guiñan guerenez, Jaincoaren Semea guizon eguin ez balitz?*

E.—Jaincoaren Semea guizon eguin ez balitz, guerenez ezin salbatuco guiñan; Adan gure lenengo aitaren pecatuagatic diabruaren mendean ta zerutic betico besterritubac baitgueunden.

G.—*Zer izan zan Adanen pecatua?*

E.—Arroquerizco ta desobedientzi larrizco pecatua izan zan Adanen pecatua.

G.—*Zer calte etorri zitzaizquigun Adanen pecatutic?*

E.—Jaunaren grazia galtzea, jaquiñezza, gaitzeraco griña, eriotza, ta beste galer asco etorri zitzaizquigun Adanen pecatutic.

G.—*Non jayo zan Jesucristo?*

E.—Belengo estalpe batean jayo zan

Jesucristo, ta ganbel batean ipiñia izan zan.

G.—*Zergatic nai izan zuen Jesucristoc ain beartsu jayo?*

E.—Jesucristoc nai izan zuan jayo ain beartsu, guri mundu ontaco aberastasun, onore ta atseguiñetan gure zoriona jarri bear ez guenduala eracustegatic.

G.—*Zer eguin zuan Jesucristoc mundu ontan bizi zan artean?*

E.—Mundu ontan bizi zan artean Jesucristoc eracutsi zuan zeruko bidea itzezta lanez, bere dotriña milagroacquiñ sendotuaz.

G.—*Zer besteric eguin zuan Jesucristoc gu salbatzeagatic?*

E.—Jesucristoc gu salbatzeagatic padezitu eta gurutzean il zan.

G.—*Jesucristo Jainco danez, edo guizon danez, il zan?*

E.—Jesucristo guizon danez il zan, bada Jainco danez etzezaquean padezitu, ill ere ez.

G.—*Jesucristo il ezqueroz zer guertatu zan bere gorputzaz?*

E.—Jesucristo il ezqueroz bere gorputza obiratua izan zan.

G.—*Ta Jesucristoren anima nora joan zan, Bera il ezqueroz?*

E.— Jesucristoren anima, Bera il ezqueroz, linbora joan zan, guraso santuen animac, edota Bera baño len ildaco santuen animac, ateratzera.

G.— *Zenbat egunetan egon zan obian Jesucristoren gorputz chit santua?*

E.— Jesucristoren gorputz chit santua iru egunean egon zan obian, ayec osoac izan ez baziran ere: ostiralaren zati battean, larunbat guzian, eta igandearen egun senti arte: orduan piztu zan gloritsu ta garaile, gueigo ez iltzeco.

G.— *Zer adirazi nai du piztu zala esateac?*

E.— Piztu zala esateac adirazi nai du Jesucristoren anima berriro gorputzarequin batu zala.

G.— *Zenbat egun igaro zituan Jesucristoc mundu ontan piztu ezqueroztic?*

E.— Piztu ezqueroztic, Jesucristoc berroguei egun igaro zituan mundu ontan, fedean bere icasleac sendotzeco.

G.— *Nora joan zan Jesucristo berroguei egun oyen buruan?*

E.— Berroguei egun oyen ondoren Jesucristo zerura igo zan, Aita guzialtsuarren escui aldean jartzera.

G.— *Jesucristoc bidaldu al zion bere Elizari Espiritu Santua?*

E.— Jesucristoc bidaldu zion bere Eli-

zari Espiritu Santua Pentecostes egunean, Bera zerura igo zanetic amar egunera.

G.—*Zeruan bacarric al dago orain Jesucristo?*

E.—Jesucristo, Jainco danez, toqui guzietan ta, guizon danez, zeruan eta aldareco Sacramentu guztiz santuan dago.

## LAUGARREN BURUA.

MUNDUAREN AZQUENECO JESUCRISTOREN  
ETORRERAZ, TA BACOITZAREN TA  
GUZIEN JUIZIYOAZ.

G.—*Aguertuco al da berriz Jesucristo mundu ontara?*

E.—Jesucristo aguertuco da mundu ontara bere azquenean, bizi ta illac, edota on eta gaiztoac, juzgatzen.

G.—*Zertzaz juzgatuco gaitu Jesucristoc?*

E.—Jesucristoc juzgatuco gaitu egun degun on ta gaitz guziaz.

G.—*Eta eriotzaren ondoren zer guertatuco da gure animaz?*

E.—Eriotzaren ondoren gure anima berealaſe Jesucristogana joango da, bere eguintzen contua ematera.

G.—*Beraz bi juizio izango ote dira?*

E.—Alaſen izango dira: bat bacoitzarentzat, il eta bereala; bestea guzientzat, munduaren azquenean.

G.—*Zer guertatuco zayo animari bacoitzaren juiziyoa igarota?*

E.—Bacoitzaren juiziyoa igarota, anima zerura joango da, Jaincoaren grazian ta zorric gabe badago; infernura, pecatu larrian balego; ta Jaincoaren grazian egon arren, jaincozco zuzentasunari zerbait zor badio, zeruan sartu baño len Garbitoquira dijoa.

G.—*Garbitoquia zer da?*

E.—Garbitoquia da animen garbiteur bat, eta ara dijoaz, pecatu larriric gabe il arren, oraindic Jaincoaren zuzentasunari beren zorra oso ordaindu ez diotenac.

G.—*Arindu al quintzaque guc zerbaitean Garbitoquico animen nequeac?*

E.—Bai, arindu quintzaque Garbitoquico animen nequeac otoitzez, indulgenziz, limosnaz ta beste eguintz on ascoz, bañan Meza santuaz batez ere.

G.—*Ez al da gueigo piztuco gure gorputza?*

E.—Gure gorputza piztuco da guzien juizioco egunean, ta onen ondoren zerura edo infernura joango da guizona

anima ta gorputzez, lan on edo gaiztoen neurriz.

G.—*Eguia ote da infernuric badala?*

E.—Bai, egua da, fedeac eracusten digu-ta.

G.—*Noiz arte egongo dira gaiztoac infernuan?*

E.—Betiraunde guzian egongo dira gaiztoac infernuan.

G.—*Pecatu larri bategatic ere merezi al dileque infernua?*

E.—Bai, infernua merezitzen da pecatu larri bacar batequin ere.

G.—*Noiz arte egongo dira onac zeruan?*

E.—Betiraunde guzian egongo dira onac zeruan.

G.—*Guizon guzioc zeruraco eguiñac ote guera?*

E.—Bai, guizon guzioc zeruraco eguiñac guera.

G.—*Zergatic ez goaz bada guzioc zerura?*

E.—Guzioc ez goaz zerura, zerura joateco egun bear guenduqueana guzioc eguiten ez degulaco.

G.—*Zer egun bear da bada zerura joateco?*

E.—Zerura joateco Jesucristogan sinistu, eta Jainco ta Elizaren aguinduen neurriz bizi bear da.

## BOSGARREN BURUA.

ELIZ SANTU CATOLICOAZ, PECATUEN  
BARCAZIOAZ, TA SANTUEN ALCARTASUNAZ.

G.—*Zer da Eliz santu catolicoa?*

E.—Eliz santu catolicoa da bataituric gauden guzien bazcuna, Jesucristo gure Jaunaren fedea aitortuaz, Sacramentu berdiñac artuaz, eta Erromako Apaiz nagusia Jesucristoc lurrean utzitaco orde-cotzat ezagutuaz.

G.—*Norc ipiñi du Eliza?*

E.—Eliza ipiñi du Jesucristo gure jau-nac.

G.—*Zertaraco ipiñi du Eliza Jesucris-toe?*

E.—Jesucristoc ipiñi du Eliza, guiza-cume guzioc an betico bizia iristeco bi-de egoquiac arqui ditzagun.

G.—*Zein dira betico bizia iristeco Eli-zan arquitzen ditugun bideric garayenac?*

E.—Betico bizia iristeco Elizan arqui-tzen ditugun bideric garayenac dira: eguizco fedea, Sacramentuen bidez gra-zia, pecatuen barcatzea ta Santuen al-cartasuna.

G.—*Zer esan nai du pecatuen barca-tzeac?*

E.—Pecatuen harcatzeac esan nai du Jesucristoc Elizari eman diola pecatu guziac baratzeco almena, ontaraco utzi dizcan Sacramentuen bidez.

G.—*Zer da Santuen alcartasuna?*

E.—Santuen alcartasuna da cristau fededun guziac bestien otoitz, ta Elizan eguiten diran langai on guzietan zerbait izatea.



# BIGARREN ZATIA

---

*Otoitzaz.*

---

## BURU BACARRA.

G.—*Otoitza zer da?*

E.—Otoitza da gure adimen ta biotza Jaincoa adoratzeco, ta berari esquerrac emanaz bear degun guzia escatzeco, Argana jasotzea.

G.—*Gauza bearra al da otoitz eguitea?*

E—Bai, otoitz eguitea, ta maiz eguitea, bearra da, Jaincoac ala aguintzen dualaco; eta lurreco ta betiraco gure onac ala escatzen duelaco.

G.—*Zenbat eratacoa da otoitza?*

E.—Otoitza bi eratacoa da: buruzcoa ta itzezcoa.

G.—*Zer da buruzco otoitza?*

E.—Buruzco otoitza adimen utsez, edo barrengo pensamentu ta gogoz, eguiten degun ura da, ta meditaziyoa deritza.

G.—*Zer da itzezco otoitza?*

E.—Itzezco otoitza itzaquin eguiten dan ura da, baña itzai adimenaren arre-

tac eta biotzaren gogo heroac lagunduaz: otoitz oni erregua deritza.

G.—*Zere laguntzen gaitu otoitz ondo eguiten?*

E.—Otoitz ondo eguiten laguntzen gaitu, Jaincoaren aurrean gaudela, ta bere erruqui ta laguntzaren bear guerala, gogoratzeac; gorputzez ondo eratuac, Jaincoaren guzizco aunitasunaren aurrea mesede billa datorrenari dagoquion bezela.

G.—*Uste al guentzaque escatzeragoazen grazia iristea?*

E.—Uste guentzaque, ta uste bear guenduque, escatzen degun grazia iristea gure animaco betico osasunaren caltegarri ez dan guzian.

G.—*Zergatic uste bear guenduque Jaunac entzungo duala gure otoitza?*

E.—Uste bear guenduque Jaunac entzungo duala gure otoitza, Berac ala aguindu digulaco; ta guziz altsu, erruquitsu ta aguindutaco gauzeten oso zintzoa dalaco.

G.—*Zertan eduqui bear guenduque gure uste au?*

E.—Gure uste au eduqui bear guenduque Jesucristoren guzizco irabazietan, bada oyetatic artzen dute indarra gure lan onac, eta orregatichec zuzendu bear

guiñizcaque Jaincoari gure otoitzac **ber**-  
re Semearen izenean.

G.—*Aozco otoitzetan garayena zein da?*

E.—Otoitzic garayena Jesucristo **ber**-  
berac eracutsi digun ura da: *Pater Nos-  
terra.*

G.—*Zer dacar PATER NOSTERRAC?*

E.—PATER NOSTERRAC dacar Jaincoa-  
rengandic uste guentzaquegun ta berari  
escatu bear guiñitzayoquean guztia.

G.—*Zenbat escatze ditu PATER NOSTE-  
RRAC?*

E.—PATER NOSTERRAC ditu zazpi es-  
catze: aurreneco labetan escatzen da **on**  
deguna, eta azqueneco iruetan ascatu  
gaitzala gaitzetic Jaincoac.

G.—*Zein dira Jaunari aurreneco lau  
escatzeetan escatzen dizcagun onac?*

E.—Aurreneco lau escatzeetan esca-  
tzen degu Jaunaren izena santificatua,  
edo mundu guzian ezagutu ta onratua  
izan dedilla; datorquigula bere erreinoa,  
berac ipiñi zuan Eliza zabaldu ta glori-  
tuaz; bere nai chit santua beti ta guzian  
eguin dedilla; eta animaco ta gorputzeco  
janaria demaigula.

G.—*Zein dira beretatic ascatzea esca-  
tzen diogun gaitzac?*

E.—Beretatic ascatzea escatzen diogun

gaitzac dira pecatuac, tentuac eta animaren osasunean calte eguiten diguten griaña ta beste argalqueri guziac.

G.—*Zer beste otoitz eguin oi degu PATER NOSTERRAZ gañera?*

E.—PATER NOSTERRAZ gañera AGUR MARIA esan oi degu, onen bidez Birjiña Guziz Santuagana beguiratuaz.

G.—*Zergatic PATER NOSTERRAREN ondoren beste edozein otoitz baño len esaten degu AGUR MARIA?*

E.—PATER NOSTERRAREN ondoren esaten degu AGUR MARIA, Birjiña Guziz Santua Jesucristoren aurrean gure bitartecoric altsuena dalaco.

G.—*On eta ongiña al da Santuac bitartecotzal gure alde billatzea?*

E.—Guziz ongiña da Santuen bitartecotasuna gure alde billatzea, oyen erre-gua Jaincoac oso ondo artu izan oi dualaco.

G.—*Izenta zadazu otoitz-sortic onena?*

E.—Otoitz sortic onena Errosario santua da, onec PATER NOSTER eta AGUR MARIAREN otoitzac eta gure erlijioko misterioric garayenen gogorapena dacazqueilaco.

G.—*Zenbat dira Errosariyoaren misteriyoac?*

E.—Errosariyoaren misteriyoac ama-

bost dira: bost atsegintsuac, bost doloretsuac eta bost gloritsuac.

**G.—Zein dira misterio atsegintsuac?**

**E.-Misterio atsegintsuac dira:** 1.<sup>º</sup> Aingeruaren gaztigua; 2.<sup>º</sup> Maria guztiz Santuac Isabel Santuari eguin zion icusaldia; 3.<sup>º</sup> Jesucristoren jayotza; 4.<sup>º</sup> Elizara Jesus eramatea; 5.<sup>º</sup> Jesus galdua Eracuslien artean Elizan arquitzea.

**G.—Zein dira misterio doloretsuac?**

**E—Misterio doloretsuac dira:** 1.<sup>º</sup> Baratzaco otoitza; 2.<sup>º</sup> Pillareco azoteac; 3.<sup>º</sup> Arantzaz coroatzea; 4.<sup>º</sup> Calbariora igotzea; 5.<sup>º</sup> Salbalearen gurutzeco eriotza.

**G.—Zein dira misterio gloritsuac?**

**E.—Misterio gloritsuac dira:** 1.<sup>º</sup> Jauñaren berpiztea; 2.<sup>º</sup> Zerura igotzea; 3.<sup>º</sup> Espiritu Santuaren jeistea; 4.<sup>º</sup> Mariaren zerura artzea; 5.<sup>º</sup> Maria guziz santuaren coroatzea eta Santu guztien gloria.



# IRUGARREN ZATIA

*Jaincoaren aguinduaz,  
Elizaren mandamentuaz eta pecatuaz.*

## LENENGO BURUA

### JAINCOAREN AGUINDUAZ:

#### 1.<sup>co</sup> §. Jaincoaren aguinduai gañetik beguiraldi bat.

G.—Zenbat dira Jaincoaren legueco aguinduac?

E.—Jaincoaren legueco aguinduac amar dira.

Ni naiz zure Jabe Jaincoa.

1.<sup>n</sup> Nere aurrean beste Jaincoric izango ez dezu.

2.<sup>n</sup> Nere izena alperric aitatuco ez dezu.

3.<sup>n</sup> Jai eguna santificatzeaz oroi zaite.

4.<sup>n</sup> Aita eta ama onra itzazu.

5.<sup>n</sup> Iñor ilco ez dezu.

6.<sup>n</sup> Araguizco pecatuz ez loitu.

7.<sup>n</sup> Ez ostu.

8.<sup>n</sup> Guezurrezco testimonioric ez jaso.

9.<sup>n</sup> Besteren emaztez ez zaletu.

10.<sup>n</sup> Besteren gauzen zale ez izan.

G.—*Norc ipiñi ditu aguindu oyec?*

E.— Jainco ber-berac eman zituen aguindu oyec Moisesen bidez antziñaco leguean, eta Jesucristoc sendotu ditu legue berrian.

G.—*Gorde al ditzaquegu aguindu oyec?*

E.— Bai, gorde ditzaquegu aguindu oyec Jaincoaren laguntzaz, eta Au prest dago bear bezela escatzen dionari grazi ori emateco.

G.—*Beartuac al gaude Jaincoaren aguindu oyec gordetzera?*

E.— Bai, beartuac gaude Jaincoaren aguindu oyec gordetzera, eta asco litzaque pecatu larriz oyetatic bacar bat austea, infernua merezi izateco.

G.—*Zer dacarte aguindu oyec?*

E.— Aguindu oyec Jaincoarequico ta gure lagunarequico ditugun eguinquizunac dacazquite.

G.—*Zer eguinquizun degu Jaincoarequico ta lagunarequico?*

E.— Jaincoarequico degun eguinquizuna da bera biotz guziz, eta guziaz gain, maite izatea; lagunarequico degun eguinquizuna da Jaincoarengatic laguna guren burua bezela maitatzea.

G.—*Jaincoac bere aguinduetan, begiratze batean icusten danic, zer aguintzen digu?*

E.— Jaincoac bere aguinduetan ona eguitea eta gaitzetic iguestea, aguintzen digu; argatic edozein aguintec zerbait aguintzen du, ta zerbait debecatzen du.

## 2.<sup>n</sup> §. Aguindu bacoitzaz.

G.— Zer aguintzen digu Jaincoac lenbizico aguinduko itzetan: NERE AURREAN BESTE JAINCORIC IZANGO EZTEZU dionean?

E.— Lenbizico aguinduko itzetan NERE AURREAN BESTE JAINCORIC IZANGO EZTEZU dionean, Jaunac aguintzen digu bera bacarric guie jabe goitzat adoratzea, maite izatea, ta serbitza.

G.— Zer debecatzen zaigu lenbizico aguinduan?

E.— Lenbizico aguinduan debecatzen zaigu guezurrezko idurien adoraziyoa, sorguinqueria, donautsia, fedeco eguiac gure zabarqueriz ez jaquitea, ta erlijioaren calteco egozein pecatu.

G.— Baña gue Aingueru ta Santuac onratu al quintzaque?

E.— Bai, Aingueru ta Santuac onratu quintzaque, ta obe izango guenduque onratzea; Jaincoaren adisquide, ta bere aurrean gure bitarteko, dira-ta.

G.— Eta Jesucristoren ta Santuen iduriak ere onratu bear al ditugu?

E.—Bai, Jesucristoren ta Santuen idurriac dudic gabe onratu bear ditugu; bada Jesucristo ta Santuengana dijoa ayen idurriyai guc ematen diegun onorea.

G.—*Eta Santuen reliquiac zergatic onratzen ditugu?*

E. Santuen reliquiac onratzen ditugu beren gorputzac Jesucristoren zati bizi ta Espiritu Santuaren bizilecu izan zirala, eta gañera gloriz jantziric betico bizitzaraco piztu bear dutelaco.

G.—*Zer debecatzen zaigu bigarren aguinduan, NERE IZENA ALPERRIC AITATUCO EZTEZU esaten danean?*

E.—Bigarren aguinduan NERE IZENA ALPERRIC AITATUCO EZTEZU esaten danean, debecatzen zaigu:

1.<sup>º</sup> Beguiramen gabe Jaunaren izena aitatzea.

2.<sup>º</sup> Guezurrezco juramentu, bear gabeko, eta edozein aldetara gaizto diranac, eguitea.

3.<sup>º</sup> Jaunaren contra, Birjiña chit Santuaren edo Santuen contra, birabac eguitea.

G.—*Zer aguintzen zaigu bigarren aguinduan?*

E.—Bigarren aguinduan aguintzen zaigu Jaunaren izen santua onratzea, eta boto ta juramentuac betetzea.

G.—*Zer aguintzen zaigu irugarren aguinduan JAI EGUNA SANTIFICATZEAZ OROI ZAITE diogunean?*

E.—Irugarren aguinduan, JAI EGUNA SANTIFICATZEAZ OROI ZAITE diogunean, aguintzen zaigu cristabari dagozquion ontasunezco eguintzaquin Jauna onratzea bere jayeraraco autuac dauden egunetan.

G.—*Zer debecatzen zaigu irugarren aguinduan?*

E.—Irugarren aguinduan debecatzen zaigu mirabe-lanac jayegunetan eguitea.

G.—*Zer aditzen da mirabe-lanen izenez?*

E.—Mirabe-lanen izenez aditzen dira mirabe, necazari ta languille guzien esku-lanač.

G.—*Ez al da jai egunetan debecatu gabe dagoan mirabe-lanic?*

E.—Zillegui dira gure bizihera, edo Jaincoaren onraraco, bear diran lanac; eta gañera bear aundiz eguiten diranac, bacoitzac bere parrocoari al danean baimena escatuaz.

G.—*Zer aguintzen zaigu laugarren aguinduan AITA ETA AMA ONRA ITZAZU esaten zaigunean?*

E.—Laugarren aguinduan AITA ETA AMA ONRA ITZAZU esaten zaigunean aguin-

tzen zaigu aita eta amari beguiramena gordetzea, pecatu eztiran gauz guzietan beren esanera jartza, eta gorputzeco beren bearretan laguntza.

G.—*Zer debecatzen zaigu laugarren aguinduan?*

E.—Laugarren aguinduan debecatzen zaigu itzez, eguitez, eta beste edozein eratan gurasoac ofenditza.

G.—*Aitaren eta amaren izenez zer beste personic aditzen dira aguindu ontan?*

E.—Aguindu ontan aitaren eta amaren izenez aditzen dira gañera, obeditu, ta beguiramen izan bear zayen gure gañeko guziac, naiz eliz-guizon ta naiz beste-lacoac.

G.—*Zer debecatzen du bosgarren aguinduac IÑOR ILCO EZ DEZU esanaz?*

E.—Bosgarren aguinduac, IÑOR ILCO EZ DEZU esanaz, debecatzen du iltzea, jo-tzea, zauritzea, eta edozer beste calte ur-coari gorputzean, gueren edo besteren bidez eguitea; baita itzez calte eguitea, gaitzen bat nai izatea ta pecaturaco bidea ematea. Aguindu ontan debecatzen da gañera batec bere burua iltzea.

G.—*Zergatic debecatzen du Jaincoac bosgarren aguinduan batec bere burua iltzea?*

E.—Bosgarren aguinduan debecatzen

du Jaincoac batec bere burua iltzea, guizona bere biziaren jabe ez dalaco, besteren biziaren jabe ez dan bezela. Elizac castigatzen du guero batec bere burua iltzea, obi santua alacoari ucatuaz.

G.—*Zer aguintzen da bosgarren aguindu ontan?*

E.—Bosgarren aguindu ontan aguintzen da gure etsayai barcatzea, ta guziyai ondo nai izatea.

G.—*Zer debecatzen da seigarren aguinduan, ARAGUIZCO PECATUZ EZ LOITU esanaz?*

E.—Seigarren aguinduan, ARAGUIZCO PECATUZ EZ LOITU esanaz, debecatzen da garbitasunaren calte dijoan eguite, begiratze ta esate guzia.

G.—*Zer aguintzen zaigu seigarren aguinduan?*

E.—Seigarren aguinduan aguintzen zaigu garbiac eta modu onetacoac izatea eguite, begiratze, ibiller ta itzetan.

G.—*Zer debecatzen zaigu zazpigarren aguinduan, Ez OSTU esaten zaigunean?*

E.—Zazpigarren aguinduan, Ez OSTU esaten zaigunean, debecatzen zaigu betteren gauza bidericgabe artu ta iduquitzea, edozer eratan lagunari calte eguitea, usuraz, engañatuaz, eta onelaco beste eraz.

G.—*Zer aguintzen zaigu zazpigaren aguinduan?*

E.—Zazpigaren aguinduan aguintzen zaigu besteri ostutacoa biurtzea, bideric gabe eguindako calteac ontzea, ta zorrac ordaintza.

G.—*Zer debecatzen zaigu zortzigarren aguinduan, GUEZURREZCO TESTIMONIORIC EZ JASO, esaten zaigunean?*

E.—Zortzigarren aguinduan, GUEZURREZCO TESTIMONIORIC EZ JASO esaten zaigunean, debecatzen zaigu Epallien aurrean guezarric iñoren caltetan sortzea; gaitzegoztea, gaizqui-esanac, gainchuriquetac, bideric gabe erabaquitza, uste charrac artza, ta edozer guezur esatea.

G.—*Zer aguintzen zaigu zortzigarren aguinduan?*

E.—Zortzigarren aguinduan aguintzen zaigu egua egoqui ta bear dan toquian aguertzea, ta ondo pensatu ditequean bitartean urcoaren eguintzaz alic onguien pensatzea.

G.—*Zer debecatzen zaigu bederatzigarren aguinduan, BESTEREN EMAZTEZ EZ ZALETU, esaten danean?*

E.—Bederatzigarren aguinduan, BESTEREN EMAZTEZ EZ ZALETU esaten danean, debecatzen zaizqui gogo charrac.

eta garbitasunaren calteco gure barrengopecatu guztiac.

G.—*Zer aguintzen zaigu bederatzigarren aguinduan?*

E.—Bederatzigarren aguinduan aguintzen zaigu barrengoz ere garbiac eta cutsu char gabeac izatea.

G.—*Zer debecatzen zaigu amargarren aguinduan, BESTEREN GAUZEN ZALE EZ IZAN, esaten zaigunean?*

E.—Amargarren aguinduan, BESTEREN GAUZEN ZALE EZ IZAN, esaten zaigunean debecatzen zaigu besteri ezer bereric quentzeco, edo bide gaiztoz guerentzeco, naya.

G.—*Zer aguintzen zaigu amargarren aguinduan?*

E.—Amargarren aguinduan aguintzen zaigu Jaincoac emandaco bizquieran pozic egotea; eta beartsutasuna, Jaincoac ala eman nai izan digunean, onez eramatea.

## BIGARREN BURUA

### ELIZAREN AGUINDUAC.

G.—*Zenbat dira Elizaren aguinduric garayenac?*

E.—Elizaren aguindu garai ta ezagu-

nenac bost dira: 1.<sup>a</sup> Igande ta beste jai aguindu guzietan meza entzutea; 2.<sup>a</sup> Garizuman, lau aldietan eta bijili aguinduetan barau eguitea, egun debecatuetan araguiric ez jatea; 3.<sup>a</sup> Guchienez urtean bein confesatzea, eta berpizteco Pazcoan bacoitzac b're Parroquian Jauna artzea; 4.<sup>a</sup> Elizari zor zaizcan amarrenac oi dan bezela ematea; 5.<sup>a</sup> Aldi debecatuetan, au da, Abenduaren aurreneco igandetic Erreguien eguneraño, ta Garizumaren aurreneco egunetic Pazcoco zortzigarren eguneraño ezcontzic ez eguitea.

G.—*Norgandic artu du Elizac aguindu oyec guri ipintzeco escua?*

E.—Aguindu oyec guri ipintzeco escua Jesucristo ber-beragandie artu du Elizac; ta orregatic Elizari obeditzen ez dionac Jainco berari ucatzen dio obeditzea.

G.—*Zer aguintzen digu Elizac lenengo aguinduan, IGANDE TA BESTE JAI AGUINDU GUZIETAN MEZA ENTZUTEA, esaten duanean?*

E.—Elizaren lenengo aguinduan, IGANDE TA BESTE JAI AGUINDU GUZIETAN MEZA ENTZUTEA esaten duanean, aguintzen digu igande ta beste jai guzietan meza santua gogo onez entzutea.

G.—*Zer aguintzen zaigu Elizaren bigarren aguinduan itz oyez: AGUINDUTA-*

CO EGUNETAN BARAUTZEA?

E.—Elizaren bigarren aguinduan itz oyez, AGUINDUTACO EGUNETAN BARAUTZEA, aguintzen zaigu Garizuman, Abenduko egun batzuetan, lau aldietan eta izendatutaco bijilietau barau eguitea.

G.—*Zein dira Espanan Abenduko barau-egunac?*

E.—Espanan barau oyec Abendu-brrengo ostiral ta larunbatac dira. Ama Birjiñaren Sortze garbico jaya egun aytaco batean erortzen bada, baraua ostegunera aldatzen da.

G.—*Zein dira Espanan bijili-egunac?*

E.—Espanan bijili-egunac dira: Pentecostes, Pedro ta Paulo apostolo santu, Santiago apostolo, Asunzio, Santu guzti ta Egüerri aurrecoac.

G.—*Zein dago baraura beartua?*

E.—Baraura beartuac daude oguei ta bat urte betetako guziac, bidezko barcatze edo ezinquizunen batez ascaturic ez badau.

G.—*Zer debecatzen digu Elizaren bigarren aguinduac, EGUN DEBECATUETAN ARAGUIRIC EZ JATEA, esanaz?*

E.—Elizaren bigarren aguinduac, EGUN DEBECATUETAN ARAGUIRIC EZ JATEA esanaz, debecatzen digu ostiral ta larunbatetan araguia jatea, jateco barcatzeric

ez badegu; gañera lau aldietaco ta abenduko barau egunetan eta bijili aguinduetan.

España ta españatar Ameriquetan larrubateco aragui ez jatea barcatua dago. (Beste barcatze batzuec azquenean icusi).

G.—*Barautzeco ta araguiric ez jateco leguea zergatic ipiñi du Elizac?*

E.—Barautzeco eta araguiric ez jateco leguea ipiñi du Elizac, guri pecatuen penitentzia eguiten, gure griñac mendetzen ta Jaincoagandic grazia iristen laguntzeco.

G.—*Zer aguintzen digu Elizac irugarren aguinduan, URTEAN GUCHIENEZ BEIN CONFESATZECO esaten digunean?*

E.—URTEAN GUCHIENEZ BEIN CONFESATZECO Elizac esaten digunean, ezagüeran sartuac dauden cristau guziac beartzen ditu guchienez urte barrenean Penitentzico sacramentura etortzera.

G.—*Zergatic dio Elizac confesatu gaitzela GUCHIENEZ urtean bein?*

E.—Elizac esaten du GUCHIENEZ urtean bein, aditzera emateagatic naico luquela gu Sacramentuac artzera maizago joatea.

G.—*Zer aguintzen digu Elizac irugarren aguinduko beste itz oyez, PIZTUERACO PAZCOAN BACOITZAC BERE PARROQUIAN*

JAUNA ARTU DEZALA, *esaten duanean?*

E.— Irugarren aguinduko beste itz oyez, PIZTUERAKO PAZCOAN BACOITZAC BERE PARROQUIAN JAUNA ARTU DEZALA esaten duanean, Elizac beartzan ditu eza-güeran sartutaco cristau guziyac Comunioco sacramentu guziz santua norc bere Parroquian urteoro Pazcoaz artzera.

G.— *Nola gordetzen da laugarren aguindua, ELIZARI ZOR ZAIZCAN AMARRENAC OI DAN BEZELA EMATEA?*

E.— Laugarren aguindua, ELIZARI ZOR ZAIZCAN AMARRENAC OI DAN BEZELA EMA-TEA, gordetzen da Jaincoac gauza guziz daucan jabetza aitortuaz, eta bere elizguizonac bear bezela bizi al izateco aguin-duric dagoena ordainduaz.

G.— *Zer debecatzen du Elizac bosgarren aguinduan, ESTALTZEAC ICHIAC DAU-DENEAN EZCONTZIC EZ EGUITEA, esaten digunean?*

E.— Elizac bosgarren aguinduan, ESTALTZEAC ICHIAC DAUDENEAN EZCONTZIC EZ EGUITEA esaten digunean, debecatzen digu ezcontz agiriac Abenduaren au-rreneco igandetic Erreguien egunera, ta Garizumaço lenengo egunetik Pazco zor-tzigarreneraño eguitea.

G.— *Zergatic esaten da: ESTALTZEAC ICHIAC DAUDENEAN?*

E.—Esaten da ESTALTZEAC ICHIAC DAUDENEAN, EspaÑan ezcontz ospatsuric eziñ egun ditequeanean, estaltzeac ichiac daudela esaten degulaco; bañan estaltzeac iriquiac daudela esaten degu, ezcontzac ospaz egun ditezqueanean.

G.—*Zergatic esaten da EspaÑan, estaltzeac ichi edo iriqui?*

E.—Esaten da EspaÑan estaltzeac ichi edo iriqui, EspaÑan oi dalaco ezcontzen diranen buru-estaltza, ta ori ezcontzaren ospetaco bat dalaco.

G.—*Zer dira estaltzeac?*

E.—Estaltzeac dira ezcontz-ondoren esaten dan Mezan, senarraren sorbalde-tan eta emaztearen buruan estalqui bat jartza.

## IRUGARREN BURUA PECATUAZ.

G.—*Pecatua zer da?*

E.—Pecatua da Jaincoaren leguea naita austea.

G.—*Pecatua zenbat eratacoa da?*

E.—Pecatua bi eratacoa da: jatorriz-coa eta oraingoa.

G.—*Jatorrizco pecatua zer da?*

E.—Jatorrizco pecatua da guzioc Adan.

**gure aurreneco aitagandic odolez jayoaz  
dacargun pecatu ura.**

**G.—Jatorrizco pecaturic gabe ez al da  
inor arquitu?**

**E.—Jatorrizco pecaturic gabe Maria  
guziz santua bacarric gallaldi bereziz ar-  
quitu zan, bere Jaincozco seme Jesucris-  
toren irabaziagatic; eta onechegatic dei-  
tzen zayo *guziz garbia*.**

**G.—Ta oraingo pecatua zer da?**

**E.—Ezagüeran sartu ezqueroztic gue-  
roc eguiten degun pecatua.**

**G.—Zenbat eratara da oraingo peca-  
tua?**

**E.—Oraingo pecatua bi erataoa da:  
larria, ta barcagarria (mortala ta beniala).**

**G.—Pecatu larria zer da?**

**E.—Pecatu larria da ezagüera osoz nai  
pensatuz Jaincoaren leguea gauz astun-  
batean austea.**

**G.—Zergatic deritza ill-erazlea pecatu  
larriari?**

**E.—Pecatu larriari deritzayo iltzallea,  
onec anima, grazizco bizia quenduaz,  
infernu-bidean uzten dualaco.**

**G.—Zer beste gaitzic dacarquio gure  
animari pecatu larriac?**

**E.—Pecatu larriac animari galeraz-  
ten dizca len eguindaco irabaziac, edo-ta  
lengo irabazi oyec guelditzen ditu, ta uz-**

ten du guizona betico bizitzaraco irabazi berriric ezin eguiñean, gaitzera gueigo macurtuaz.

G.—*Jaincoaren grazia pecatu larriz galdu duanac ez al dezaque irichi berriro?*

E.— Jaincoaren grazia pecatu larriz galdu duanac berriro irichi lezaque confesioco Sacramentuaren bidez, baita contriziozco damuz ere, damu au lenbailen confesatzeco asmo aguiri edo estaliarequin eguiten badu.

G.—*Zer da pecatu arin edo beniala?*

E.— Pecatu beniala da, Jaincoaren grazigabe uzten ez bagaitu ere, caridadearen berotasuna guregan guchitzen duana, pecatu larriraco bidean jartzen gaituana, eta mundu ontan edo bestean igaro bearco ditugun aldiren bateco nequeac dacarzquiguna.

G.—*Zergatic deritza ariña pecatu oni?*

E.— Pecatu oni deritza ariña, errazago Jaincoarengandic bera barcatzea iristen dalaco, uts ariña bai-ta.

G.—*Zenbat eratan eguin diteque pecatu?*

E.— Lau eratan eguin diteque 'pecatu: gogoz, itzez, eguitez ta utsez.

G.—*Nola eguiten da pecatu gogoz, itzez ta eguitez?*

E.—Eguiten da pecatu gogoz, itzez ta eguitez, gogo erabaquiz gauza debecatu-ren bat atseguiñez pensatzen, nai izaten, esaten,edo eguiten degunean.

G.—*Utsez nola eguiten da pecatu?*

E.—Utsez eguiten da pecatu aguindu bat navez uzten danean.

G.—*Zenbat dira gaizqueri-buruac?*

E.—Gaizqueri-buruac zazpi dira: aundiqueria, zicoizqueria, araguiqueria, aserrequeria, jatequeria, becaizqueria ta naguiqueria.

G.—*Zergatic deritzate gaizqueri-buruac oyei?*

E.—Gaizqueri buruac deritzate oyei beste gaitz ta pecatuen buru ta iturriyac diralaco.

G.—*Zenbat dira Espiritu Santuaren contraco pecatuac?*

E.—Espiritu Santuaren contraco pe- catuac sei dira: betico osasunaz etsitzea; gueren irabaziric gabe salbatzeco ustea; egui ezagutua ucatzea; besteren graziz becaizqueria artzea; bacoitza bere pe- catuetan gogortzea; iltzeco zorian peni- tentziric ez eguitea.

G.—*Zer gogoratzec urrutitzen gaitu gueyena pecatutic?*

E.—Pecatutic gueyena urrutitzen gaituen gogoratzea da azquen icusquizune-na, edo il ezquieroz icusi bear ditugun gauzena.

G.—*Icusquizun oyec zenbat dira?*

E.—Icusquizun oyec lau dira: eriotza, epaya, infernua ta zerua.



# LAUGARREN ZATIA

---

*Sacramentuac.*

---

## LENENGO BURUA.

SACRAMENTU GUZIYAI BEGUIRALDI BAT.

G.—*Zenbat dira sacramentuac?*

E.—Sacramentuac zazpi dira: Batayoa, Confirmaziyoa, Comuniyoa, Penitentzia, azquen-Oleaziyoa, apaizen Ordentzea eta Ezcontza.

G.—*Zer aditzen da sacramentuaren itzez.*

E.—Sacramentuaren itzez aditzen da Jesucristo gure Jaunac gure anima santutzeo ipiñi zuan graziaren señale aguiri ta eguelle bat.

G.—*Zergatic deitzen diezu sacramentuai graziaren señale aguiri ta eguelle bat?*

E.—Sacramentuai deitzen diegu Jauñaren graziaren señale ta eguelleac, sacramentu guziyac icusten dan gauza bat ez grazi ori aditzera ematen dutelaco, bera gure animan iñuriaz.

G.—*Nola santutzen gaituzte sacramentuac?*

E.—Sacramentuac santutzen gaituzte Jaincoaren gogoco eguiten gaituelaco grazia guri emanaz edo ugarituaz, eta Jaincoaren Seme ta Zeruaren jabe-gai gueguiñaz.

G.—*Norc eman die sacramentuai gu santutzeco indarra?*

E.—Gu santutzeco indarra sacramentuai eman die Jesucristoc bere pasio ta eriotzaren bidez.

G.—*Zein dira grazia emanaz, eta Jaincoaren adisquide eguiñaz, santutzen gaituzten sacramentuac?*

E.—Aurreneco grazia emanaz, eta Jaincoaren etsai izatetic adisquide eguiñaz, santutzen gaituzten sacramentuac bi dira: batayoa ta penitentzia; eta deitzen zaye illen sacramentuac, animaren eriotza dan pecatua quentzen digutelaco.

G.—*Zer sacramentuc santutzen gaituzte grazia ugarituaz?*

E.—Grazia ugarituaz santutzen gaituzten sacramentuac bost dira: confirmazioa, comuniyoa, azquen oleaziyoa, apainen ordentzea ta ezcontza; eta deitzen zaye bizien sacramentuac, ayec artzen dituztenac Jaunaren grazian biziric edo

pecatu larriric gabe artu bear dituzte-laco.

G.—*Zer pecatu eguiten du bizien sacramentu bat, Jaunaren grazian ez dagoala daquielaric, artzen duanac?*

E.—Jaunaren grazian ez dagoala daquielaric bizien sacramentu bat artzen duanac donauste larri bat eguiten du.

G.—*Salbatzeco sacramenturic bearrenac zein dira?*

E.—Salbatzeco sacramenturic bearrenac bi dira: batayoa ta penitentzia; batayoa guzientzat bearra da, eta penitentzia ere batayo ezquieroz pecatu larri bat eguin duten guziyentzat bearra da.

G.—*Zer sacramentu dira bein bacarric artu litezqueanac?*

E.—Bein bacarric artu litezquean sacramentuac iru dira: batayoa, confirmaziyoa ta apaizen ordentzea.

G.—*Iru sacramentu oyec batayoa, confirmaziyoa ta apaizen ordentzea, zergatik dira bein bacarric artu litezqueanac?*

E.—Iru sacramentu oyec batayoa, confirmaziyoa ta apaizen ordentzea dira bein bacarric artu litezqueanac beñere gal-tzen ez dan señale bat ezartzen digute-laco.

G.—*Zer da batayo, confirmazio ta*

*apaizen ordentzeac animan ezartzen diguten señale ori?*

E.—Batayo, confirmazio ta apaizen ordentzeac animan ezartzen diguten señale ori da beñere quenduco elzaigun espiritu zco señale bat.

G.—*Zertaraco da batayo, confirmazio ta apaizen ordentzeac animan ezartzen diguten señale ori?*

E.—Batayo, confirmazio ta apaizen ordentzeac animan ezartzen diguten señale ori da: batayocoa Jesucristoren zati, confirmaziocoa bere gudari, eta apaizen ordentzecoa bere ministro eguin gaitzan.

G.—*Zenbat gauz bear dira sacramentu bat eguiteco?*

E.—Sacramentu bat eguiteco bear dira: gaya, era, ta emallea elizac eguiten duana eguiteco asmoz.

G.—*Zer da sacramentuen gaya?*

E.—Sacramentuen gaya da bera eguiteco ibiltzen dan gauz agirriya: batyoyan ura, confirmaziyoan balsamoarequico oliyoa.

G.—*Zer da Sacramentu baten era?*

E.—Sacramentu baten era dira bera eguiteracoan esaten diran itzac.

G.—*Zein da sacramentuen emallea?*

E.—Sacramentuen emalle da sacramentu bera eguiten edo ematen duana.

## BIGARREN BURUA.

### BATAYOA.

G.—*Zer da Batayoco sacramentua?*

E.—Batayoco sacramentua da Jaincoaren grazira berriro jayoaraziaz Cristau eguiten gaituan sacramentu ura.

G.—*Zer dira batayoco sacramentuaren ondoreac?*

E.—Batayoco sacramentuac barcatzen du jatorrizco pecatua, baita oraingoa ere artzalleac badu; quentzen du ayengatic zor zan neque guzia; Jesucristoren zati gueralazco señalea ezartzen digu; eguiten gaitu, Jainco ta Elizaren seme ta zeruaren jabe-gai, ta uzten gaitu beste sacramentuac artzeco diña eguiñic.

G.—*Zein da Batayoco sacramentuaren geyenetaco emallea?*

E.—Batayoco sacramentuaren geyenetaco emallea apaiza da, batez ere **apaiz** au anima-zai izatera.

G.—*Bear batean norc eman lezaque batayoa?*

E.—Bear batean edozeñec eman lezaque batayoa, naiz guizon ta naiz emacumezcoac; baita ereje edo fede gabe bat balitz ere.

G.—*Zer eguiten da Batayoa emateco?*

E.—Batayoa emateco ura, bataitu bear danaren burura ezin danean, gorputzaren beste toqui garayen batera iſuriaz, esan bear da: Nic bataitzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.

G.—*Zer asmo izan bear du bataileac?*

E.—Eliz santuac bataitzерacoan eguiten duan uraſen eguiteco asmoa bear du bataileac.

G.—*Noiz eraman bear dira elizara umeac bataitzeco?*

E.—Al-dan lenen eraman bear dira umeac elizara, bataituac izan ditezen.

G.—*Zertara guelditzen da beartua batayoa artzen duana?*

E.—Batayoa artzen duana Jesucristoren fedea beti eduquitzena, ta bere legue ta Elizarenaz bizitzera, beartua guelditzen da.

G.—*Zer gauz uzten dira batayo santua artzeracoan?*

E.—Batayo santua artzeracoan uzten dira betiraco etsaya, bere egui, ta arroqueriyac.

G.—*Zer aditzen da etsayaren egui ta arroqueriz?*

E.—Etsayaren egui ta arroqueriz aditzen dira pecatuac, dotriña gaiztoac eta munduaren usqueria.

G.—Beartuac al gaude gure izenean gure ait-ordekoac eguindako esqueintz eta uzte oyetara?

E.—Bai, beartuac gaude, ta Jaincoac ez gaitu bere grazira alaz baizic artu.

## IRUGARREN BURUA

### CRISMA EDO CONFIRMAZIOA.

G.—Zer da Confirmazioco sacramentua?

E.—Confirmazioco sacramentua Espiritu Santua ematen, gure animan Jesucristoren gudari-señalea ezartzen, ta cristau oso eguiten gaituen sacramentua da.

G.—Eta nola eguiten gaitu cristau oso Confirmazioco sacramentuac?

E.—Confirmazioco sacramentuac eguiten gaitu cristau oso, batayo santuan artutako fedean sendotuaz, orduan ezarri zitzaitzquigun beste birtute ta doayetan ere osatzen gaituelaco.

G.—Zenbat dira Confirmaziyoan artzen ditugun Espiritu Santuaren doayac?

E.—Zazpi dira confirmaziyoan artzen ditugun Espiritu Santuaren doayac: jaquinduria, adimena, epaitz ona, indarra, ezagüera, ontasuna ta Jaincoaren bildurra.

G.—*Eta guziyac izan bear al dute confirmaziyoco sacramentua artzeco ardura?*

E.—Bai, guziyac izan bear dute confirmaziyoco sacramentua artzeco eta beren mendecoei arrerazteco ardura.

G.—*Zer adiñetan litzaque ondo confirmaziyoa artzea?*

E.—Confirmaziyoa artzea ondo litzaquean adiña guchi gora bera zazpi urtean da, bada orduan asi oi zaizquigu tentamenac; eta Sacramentu onen grazia zerbait ezagutzez gañera, bei a artutacoaz guero oroitzen da aurra.

G.—*Zer adiñetan oi da Espanañan confirmaziyoa ematea?*

E.—Espanañan, bidezco oituraz, ematen zaye umeai ascotan beren ezaguerara irichi baño len.

G.—*Zer guertaeratan egon bear da confirmaziyoco sacramentua ondo artzeco?*

E.—Confirmaziyoco sacramentua ondo artzeco Jaincoaren grazian egon bear da, fede santuco misterioric garayenac jaquin bear dira, eta beguirapenez ta debozioz artzera joan bear da, (artaraco gai danean.)

G.—*Zein da confirmaziyoco sacramentuaren emallea?*

E. — Confirmazioco sacramentuaren emallea Gotzaya da.

G. — *Nola ematen du confirmaziyoa Gotzayac?*

E. — Confirmazioco sacramentua emateco zabaltzen ditu Gotzai jaunac bere escuac confirmatu bear diranen gain, Espiritu Santuari ayengana deituaz; guero eguiten die crisma santuz gurutze bat bacoitzaren becoquian, esanaz: Nic señalatzen zaitut gurutzearen señalez eta sendotzen zaitut osasunezco crismaz Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean; bereala bere escuiz ematen die masalleco arin bat, Paquea izan dedilla zurequin esanaz; eta azquenean confirmatutako guziac bedeincatzen ditu.

G. — *Zer da crisma santua?*

E. Crisma santua da ostegun santuz Gotzayac consagraturako balsamuareqnin nastutako oliyoa.

G. — *Eta zer adirazten dute olio ta balsamoac sacramentu ontan?*

E. — Sacramentu ontan išurtzen dan eta indartzen duen oliyoac adirazten du gu fedean sendotzeco gure animan išurtzen dan grazi ugaria; ta balsamo usaitzu, eta usteltasunetic gordetzen duenac adirazten du grazi onequin indartutako cristaba gai dala cristau-birtutezco usai

ona emateco, eta gaizqueri ustelcorreta-  
tic gordetzeco.

G.—*Zergatic igortzitzen da becoquian?*

E.—Becoquian igortzitzen da, confir-  
matuac jaquin dezan ez duala lotsatu  
bear cristabaren izen ta izateaz, ez ta bil-  
durric izan ere fedearen contraco etsayei,  
becoquian aguertzen baitira bildur ta  
lotsaren señaleac.

G.—*Zergatic ematen zayo confirmatuari masalleco arin bat?*

E.—Confirmatuari ematen zayo masa-  
lleco arin bat, jaquin dezan prest egon  
bear duala Jesucristoren fedeagatic edo-  
zer bidegabe ta neque eramatera.

G.—*Zer egun bear du cristabac, con-  
firmazioaren graziari eusteco?*

E.—Confirmazioaren graziari eusteco  
cristabac maiz erregutu, gauz onac egun,  
eta Jesucristoren legueaz bizi bear du,  
iñoren bildurric gabe.

## LAUGARREN BURUA.

### COMUNIYOA.

**Comunioco sacramentuan Jesucristoren  
egoitzaz.**

G.—*Zer da Comunioco sacramentua?*

E.—Comunioco sacramentua ogui·ar-  
doen iduriz gure animen janaritzat Jesu-

cristoren gorputz, odol, anima ta Jaincotasuna eguizqui dauzcan sacramentua da, ogui-ardoen izate guztia Jesus beraren gorputz ta odol eguiten baita.

G.—*Nola deritza aldaer arrigarri orri?*

E.—Aldaer arrigarri orri deritza IZATALDATZEA.

G.—*Zeruan dagoen eta Ama Birjiñagandic lurrera jayo zan Jesucristo bera al dago Comuniyoan?*

E.—Bai jauna, comuniyoan Jesucristo ber-bera dago.

G.—*Zergatic sinisten dezu Jesucristo bera dagoala Comunioco sacramentuan?*

E.—Jesucristo berac esan dualaco, eta Eliza santuac eracusten didalaco, sinisten det eguiz dagoala Jesus Comunioco sacramentuan.

G.—*Ostia zer da consagratu baño len?*

E.—Consagratu baño len ostia ogui da.

G.—*Eta consagratze ondoren ostia zer da?*

E.—Consagratze ondoren c̄stia ogui-iduri pean Jesucristo gure Jaunaren eguizco gorputz da.

G.—*Calizan zer dago consagratze-aurretic?*

E.—Calizan consagratze-aurretic ur tanto batzuequin ardo piśca bat dago.

G.—*Eta consagratze ondoren calizan zer dago?*

E.—Consagratze ondoren calizan ardo-iduripean Jesucristo gure Jaunaren egui zco odola dago.

G.—*Noiz eguiten da oguiaren aldaera ori Jesucristoren gorputzean, eta ardoaren aldaera bere odolean?*

E.—Oguiaren aldaera Jesucristoren gorputzean, eta ardoaren aldaera bere odolean, eguiten da apaizac consagratzeko itzac meza santuan esaten dituanean.

G.—*Consagratzeco itzai norc eman die ainbeste indar?*

E.—Consagratzeco itzai eman die indar ori Jainco guziz altsu dan Jesucristo gure jaun berac.

G.—*Ez da beraz consagratze ondoren guelditzen ezer ogui ta ardotik?*

E.—Consagratze ondoren ogui ta ardoaren iduriac baizic guelditzen ez da.

G.—*Ogui ta ardoaren iduri oyec zer dira?*

E.—Iduri oyec dira zenbatetasun ta nolacotasun agiriyac, ichura, colore, gusto ta orrelaco besteac diran bezela.

G.—*Oguiaren iduripean Jesucristoren gorputza bacarric, eta ardoaren iduripean Jesucristoren odola bacarric al daude?*

E.—Jesucristo guziya dago biziric bere gorputz, odol, anima ta Jaincotasunarequin, bai oguiaren ta bai ardoaren iduripean.

G.—*Munduko osti consagratu guztietan bai al dago Jesucristo?*

E.—Bai, osti consagratu guztietanche dago Jesucristo.

G.—*Ostia zatitzen danean Jesucristoren gorputza zatitzen al da?*

E.—Ostia zatitzen danean ez da zatitzen Jesucristoren gorputzic, baizican oguiaren iduriac bacarric zatitzen dira.

G.—*Jesucristoren gorputza ostiaren zer zatitan guelditzen da?*

E.—Jesucristoren gorputza osoric guelditzen da ostiaren zati guztietan.

G.—*Zergatic iduquitzen da elizetan Comunio guztiz santua?*

E.—Comunio guztiz santua iduquitzen da elizetan cristabae adoratu dezaten, eta bear danean gašoai eramateco.

## 2.<sup>en</sup> §. Zertaraco dan Comuniyoa ta bere ondoreac.

G.—*Zertaraco jarri zuan Jesucristo gure jaunac Comunio guztiz santua?*

E.—Iru gauzetaracoa batez ere jarri zuan Jesucristoc Comunio guziz santua: lenbizi, legue berrico Sacrifizio irauncor

izan zedin; bigarren, gure animen janari izan dedin; eta irugarren, bere Pasio ta Eriotzaren betico oroipen guretzat izan dedin, baita ere guganaco bere naitasunaren eta betico bizitzaren segurutasun indartsu izan dedin.

G.—*Zer on dacartzzi batic bat Comunio-co sacramentu guziz santuac bera artzen duanarentzat?*

E.—Bear bezela Comunio guziz santua artzen duanari eguiten dizca batez ere on oyec: lenbizi, gorputzaren janariac gure gorputzeco bizia gordetzen ta gueitzen duan bezela, comuniyoac gordetzen ta gueitzen du grazian arquitzen dana-ren animaco bizia; bigarren, barcatzen ditu pecatu ariñac larrietatic gordeaz; ta irugarren, ematen digu animaco poz bat.

**3.<sup>en</sup> §. Nolatan comulgatu bear dan, eta comulgatzeko zer bearretan gauden.**

G.—*Comunio on bateraco zer gauz bear dira?*

E.—Comunio on bateraco iru gauz bear dira: aurrenecoa, Jaunaren grazian egotea; bigarrena, aurreco gaberditic Jau-na artze artean barauric egotea; ta irugarrena, zer artzera goazen ondo daquigularic jayeraz comuniora joatea.

G.—*Grazian egoteac zer esan nai du?*

E.—Grazian egoteac esan nai du garbi ta pecatu larriric gabe anima iduquitzea.

G.—*Pecatu larrian Jauna artzera di-joanac zer pecatu eguiten du?*

E.—Pecatu larrian Jauna artzera di-joanac donauste izugarri bat eguiten du.

G.—*Jauna artzera joateco zer barau bear da?*

E.—Jauna artzera joateco barau gorria bear da, eta au austen da edozer gauz jan-edanez bezela artuaz.

G.—*Eta zillegui al da noiz edo noiz barauric ez dagoala Jauna artza?*

E.—Zillegui da iltzeco zorian dauden gašoentzat, eta orduan comuniyoari *Bideracoa* deritza.

G.—*Zer artzera goazen jaquiteac, zer esan nai du?*

E.—Zer artzera goazen jaquiteac esan nai du cristau dotriñan sacramentu one-tzaz eracusten dana jaquitea, ta sendo sinistea.

G.—*Jayeraz comulgatzeac zer esan nai du?*

E.—Jayeraz comulgatzeac esan nai du umilqui ta modestiz sacramentu ortara urreratzea beregan bezela jantziyan, eta

lendic ondo prestatzea, Jauna artu ondoren esquerrac emanaz.

G.—*Noiz gaude Jauna artzera bear-tuac?*

E.—Jauna artzera beartuac gaude urteoro Pazco loratuan bacoitza bere parrroquian, eta gañera iltzeco zorian.

G.—*Noiztandic beartzen gaitu Pazcoco Jauna artzeac?*

E.—Aurra bear bezelaco prestaeraz Jauna artzeco gai danetic.

G.—*Ondo ta oncarle al da Jauna maiz artzea?*

E.—Jauna maiz artzea gauz ederra da, bear bezelaco guertaeraz eta confesorearen iritziz eguiten danean.

G.—*Luzaro egoten al da guregan comulgatu ondoren Jesucristo?*

E.—Comulgatu esquieroz bere graziz gugan dago Jesucristo pecatu larriric eguiten ez degun bitartean, eta eguizco egotez sacramentuko iduriac galtzen ez diran artean.

#### 4.<sup>en</sup> §. Mezaco sacrificio santuaz.

G.—*Eucaristia sacramentu izatez gañera beste zerbaite bai al da?*

E.—Eucaristia sacramentu izatez gañera da legue berrico Sacrifizio iraun-corra.

G.—*Eta nola deritza legue berrico sacrificio oni?*

E.—Legue berrico sacrificio oni Meza santua deritza.

G.—*Zer da Meza santua?*

E.—Meza santua da Jesucristoren gorputz eta odolaren sacrificiyoa; gurutzeco sacrificiyoaren oroipenean gure aldarietan ogui-ardoen iduripean esqueintzen dana.

G.—*Mezaco sacrificiyoa gurutzeco sacrificio bera al da?*

E.—Mezaco sacrificiyoa gurutzeco sacrificio bera da, batean ta bestean Jesucristo apaiz eta esqueingai dalaco, bañan esqueintzeco eran berdiñac ez dira.

G.—*Zer berdiñeztasun dute esqueintzeco eran?*

E.—Berdiñeztasuna ontan dago: gurutzeco sacrificiyoan il zan eta iñuri zuan eguziz Jesucristoc bere odola; eta meza-coan, aren oroipena dalaco, odol iñurtze gabe esqueintzen da Jesucristo; gañera gurutzeco sacrificiyoan osatu zituan gure berterosteraco irabaziak, eta mezacoan oyec ezartzen dizquigu.

G.—*Norc ipini zuan Mezaco sacrificio santua?*

E.—Mezaco sacrificio santua ipini zuan

Jesucristo berac azqueneco aparian, Communioco sacramentua jarri zuanean.

G.—*Zertaraco esqueintzen zayo Jaincoari Mezaco sacrificio santua?*

E.—Lau gauzetalako esqueintzen zayo Jaincoari Mezaco sacrificio santua: lenbizi, dagoquion bezela bera onratzeco; bigarren, arganic artutako mesedien eza-güera aguertzeco; irugarren, bera paquetzeco eta gure pecatuen zorra ordaintzeco eta azquenic arganic bear ditugun grazzi guztiak iristeko.

G.—*On al litzaque egunero Meza santua entzutea?*

E.—Oso oncarlea da egunero Meza santua entzutea, aguinduric ez badago ere.

G.—*Zer eguin bear da Meza santua ongi entzuteco?*

E.—Meza santua ongi entzuteco arreta aundiz ta debozioz egon bear da asieratic amaitu arte, Jaincoagan eta Jesucristo gure Jaunaren Pasiyoan pensatzen, otoitz jayeratsuac eguiñaz.

---

## BOSGARREN BURUA.

### PENITENTZICO SACRAMENTUA.

**1.<sup>o</sup> §. Sacramentu au ondo artzeco bear dan  
guertaeraz, ta batez ere conzientzico  
esamiñaz.**

**G.—*Penitentzico sacramentua zer da?***

**E.—** Penitentzia edo Confesiyoa da Jesucristo gure Jaunac batayo ondoreco pecatuac barcatzeco ipiñi zuen sacramentua.

**G.—*Zenbat gauz bear dira confesio  
on bat eguiteco?***

**E.—** Confesio on bat eguiteco bost gauza bear dira: 1.<sup>a</sup> conzientzico esamiña; 2.<sup>a</sup> pecatuen damu ta gorrotoa; 3.<sup>a</sup> ontzeo asmo sendo bat; 4.<sup>a</sup> pecatu guziac aitortzea, eta 5.<sup>a</sup> confesoreac jartzen digun penitentzia betetzea.

**G.—*Conzientzico esamiña nola egui-  
ten da?***

**E.—** Conzientzico esamiña eguiten da Jaincoaren aurrean, bere contra, elizaren contra, eta gueren eguinquizunen contra, asmoz, itzez, egitez eta utsez egundaco ta aitortu gabeko pecatu guziac gogora arretaz ecarriaz.

G.—*Eta esamiñan, pecatuac zenbat izan diran icusi bear al da?*

E.—Esamiñan icusi bear da pecatu larriac beintzat zenbat izan diran.

G.—*Eta pecatu larriz gañera, berac eguitaracoan izan guinduen aldecoyetan pensatu bear al degu?*

E.—Pensatu bear degu ere pecatu ariña bere mallatic larrien mallara igotzen duten aldecoiz.

## 2.<sup>en</sup> §. Damu ta proposituaz.

G.—*Pecatuen damua zer da?*

E.—Pecatuen damua da ayec eguindakoz barrenen daucagun samintasuna, berac gorrotatuaz, eta berriz ez eguiteco asmoac artuaz.

G.—*Zergatic damutu bear degu pecatuaz?*

E.—Damutu bear degu eguindako pecatuaz Jaincoaren castiguac merezi izan ditugulaco, bañan are ta gueigo guziyaz gain maite bear guenduquean, eta ala maitatzea merezi duan, Jainco neurri gabe on bat ofenditu degulaco.

G.—*Zer eguin bear da damutasun ori iristeko?*

E.—Jaincoari biotzetic escatu, eta pecatuarequin eguin degun gaitz aundiazen ezagüeraz gure barrena esnarazi.

G.—*Damu au zenbat eratacoa da?*

E.—Damu au bi eratacoa da: osoa ta osatu-gabea.

G.—*Damu osoa zer da?*

E.—Damu osoa da Jainco neurri gabe on dan eta gure maitetasun guzia berez dagoquiona ofenditutaco damua: damu oni contriziyoa deritza.

G.—*Zergatic deitzen diozu damu osoa contriziozco damuari?*

E.—Bi gauzagatic deitzen diot osoa contriziozco damuari: lenbizi, Jaincoaren ontasunari beguiratzen diolaco; ta bigarren, ber-bertatic pecatuen barcapena damu orrequin iristen degulaco, guero oyec confesatu bearra guelditzen bazangu ere.

G.—*Zer da damu osoeza edo atriziyoa?*

E.—Damu osoeza edo atriziyoa da, Jaincoa guzien Epalle dan bezela ofenditu degulaco, edo ta mundu ontan eta bestean pecatuarequin merezi izan ditugun castigüen bildurrez, sortua.

G.—*Damu osoez au, edo atriziozco damua, naico al da pecatuen barcapena iristeco?*

E.—Damu osoeza, edo atriziozco damua, naicoa da pecatuen barcapena iristeco, ura daucagularic absoluziyoa artzen badegu.

G.—*Zer gaitz eguiten da pecatu eguiñaz?*

E.—Pecatu larriaz batic-bat eguitèn degun gaitza da Jaincoaren grazi ta gloria galtzea; infernuco nequeac meritezza; ainbat mesede eguin digun, ainbeste maite gaituen, ta guziyaz gain maietzea bide osoz zor diogun, eta Berari agurtuaz mendetasuna zintzoro beti aguertu bear guiñioquean gure Jaun eta Aita ofenditzea.

G.—*Damuac zabaldu bear al du pecatu guzietara?*

E.—Bai jauna, eguindaco pecatu larri guzietara zabaldu bear du damuac.

G.—*Pecatu ariñez bacarric confesatzen danac guziezaz damutu bear al du?*

E.—Confesiyoa ondo eguiña izateco asco litzaque ayetatic batzuezaz damutzea; baña guzien barcapena iristeco, guziezaz damutu bear da.

G.—*Asmoa zer ote da?*

E.—Asmoa da beñere gueyago peccatric ez eguitera jartzea, eta pecatuari iguesteco bear diran neurri guziac artzea.

### 3.<sup>en</sup> §. Pecatuen aitorpena.

G.—*Pecatuac confesatzea zer da?*

E.—Pecatuac confesatzea da eguin di-

• tugun pecatuac confesoreari garbi aitor-tzea, ayetatic ascatu gaitzan eta peniten-tzia eman dizagun.

G.—*Zer pecatu aitortzera gaude bear-tuac?*

E.—Pecatu larriac beintzat aitortzera beartuac gaude; egoqui izango balitz ere gañera ariñac aguertzea.

G.—*Nola aitortu bear ditugu pecatu larriac?*

E.—Pecatu larriac aitortu bear ditugu zenbat eta zer malletacoac diran esanaz; mallaz pecatua igotzen duten aldecoyac aguertuaz, edota berenez pecatuac ariñac izan arren eraascaiz larritu baditugu.

G.—*Zer egun bear du bere pecatuac zenbat diran oroitzen ez danac?*

E.—Bere pecatu larriac zenbat diran oroitzen ez danac guchi bat gora bera zenbat izan diran eguz aitortu bear du.

G.—*Eta lotsez pecatuen bat confeso-reari aitortu gabe uzten duenac, confesio ona eguingo al du?*

E.—Lotsez confesoreari egquia esaten ez dionac, pecatu larrien bat iñil utziaz, zenbat dituan ezcutatuaz edo esan bear diran aldecoyac esan gabez, donauste bat eguingo du.

G.—*Zer egun bear du len ondo confe-satu ez dala daquienac?*

E.—Len ondo confesatu ez dala daquie-nac berritu bear ditu gaizqui eguindaco confesiyoac, eta gañera aguertu bear ditu eguindaco donaustea edo donausteac.

G.—*Confesio ona eguin al zuan aztuta pecatu larriren bat confesatu gabe utzi zuenac?*

E.—Pecatu larriren bat oroitu gabez utzi zuenac confesio ona eguin zuan, arretaz esamiñatu bazan; bañan oroitu ez-queroz, pecatu uraurrengo aldian confesatu-bearrean guelditzen da.

G.—*Nola jarrico zera confesorearen aurrean?*

E.—Belaunico jarrico naiz, esanaz: *Aita, bedeinka nazazu, pecataria naiz-ta*, eta gurutzearen señalea eguingo det.

G.—*Gurutzearen señalea eguin ondoren zer esango dezu?*

E.—Gurutzearen señalea eguin ondoren esango det: *Ni pecataria confesatzen naitzayo Jaun guzialdunari, Maria beti Birjiña doatsuari, Santu guziyai eta zuri, Aita, pecatu eguin detala.* Eta gue-ro nere pecatuac bear bezela aguertuco ditut.

G.—*On al da lengo pecatu larrien bat aitortza?*

E.—Bai, Jauna, bada onec, batez ere pecatu ariñac bacarric aitortu diranean,

laguntzen du damua sendotzen, eta au gabe absoluziyoac indarric ez du.

G.—*Zer eguingo dezu pecatuen aitorpenaren ondoren?*

E.—Pecatuen aitorpenaren ondoren entzungo det umilqui confesoreac esaten didana, penitentzia artuco det bera betetzeko asmo osoz, eta absolutio santua ematen didan bitartean biotz-biotzetic contriziozco eguintza berrituco det.

G.—*Zer eguin bear da absolutziyoa artu ondoren?*

E.—Absolutziyoa artu ondoren Jaunari esquerrac emango dizcat, lenbailen penitentzia beteco det, eta jarraituco ditut Confesoreac eman dizquidan esanac.

#### 4.<sup>en</sup> §. **Absolutziyo ta satisfaziyoaz.**

G.—*Absolutziyoa zer da?*

E.—Absolutziyoa da, apaizac Jesucristoren izanean pecatariari pecatuac baratzeko ematen duan epaya.

G.—*Zer da satisfazio edo penitentzia?*

E.—Satisfazio edo penitentzia deitzen zaye Confesoreac pecatariari bere erru charrac garbitzeco ipiñi oi dizcan otoitz edo eguite onai.

G.—*Noiz bete bear da sacramentuko penitentzia?*

E.—Sacramentuko penitentzia bete

bear da lenbailen, confesoreac eperic ja-  
rri ezpadu.

G.—*On al da maiz confesatzea?*

E.—On da illean bein bederic confe-  
satzea, bañan pecatu larrian dagoala da-  
quienac confesatzera lenbailen urreratu  
bear du.

## SEIGARREN BURUA.

### ESTREMAUNZIYOAZ.

G.—*Zer da Estremaunziyoa?*

E.—Estremaunziyoa, Olio santuen ize-  
na ere daramana, iltzeco zorian dau-  
den gañoei anima ta gorputza alaitzeco  
ipiñitaco sacramentu bat da.

G.—*Zer ondorengo dacarzqui Estre-  
maunzioco sacramentuac?*

E.—Estremaunzioco sacramentuac da-  
carzqui ondorengo oyec: 1.<sup>º</sup> gueitzen du  
santutzeco grazia; 2.<sup>º</sup> barcatzen ditu gaño  
damantuac ezin confesatu izan zituan  
pecatu arin ta larriac ere; 3.<sup>º</sup> barcape-  
na irabazi arren, gueroraco guelditzen  
dan aulqueri ura quentzen du; 4.<sup>º</sup> gai-  
tza ondo eramateco, tentapenai gogor  
eguin, eta ongi iltzeco indarra ematen  
du, eta 5.<sup>º</sup> laguntzen du gorutzeko

osasuna iristen, au animacoari ondo badoquio.

G.—*Zer garaitan artu bear dira Olio santuac?*

E.—Olio santuac artu bear dira gaitzac bizitza galtzeco zorian ipintzen duanean, eta al bada, gašoac Penitentzico ta Eucaristico sacramentuac artu ondoren bere sentzuac dauzcan artean.

## ZAZPIGARREN BURUA.

### ORDEN SAGRADUAZ.

G.—*Zer da Orden sagraduco sacramentua?*

E.—Orden sagradua da, Jaincoaren adorapen ta animen osasunari dagozquierien lanqueta sagraduac erabiltzeco indarra ematen duan sacramentua, eta artzen duenaren animan ezartzen du Jaunaren elizguizonen ezagupidea.

G.—*Zer izan bear du eliz-egoitza artzen duenaren asmoac?*

E.—Eliz-egoitza artzen duenaren asmoac izan bear du bacar-bacarric Jaincoaren gloria ta animac salbatzea.

G.—*Edozeñec berez autu al dezaque eliz-egoitza?*

E.—Iñorc, berez, ezin autu dezaque

eliz-egoitza, baizic Jaincoac deitu bear dio artara.

G.—*Beraz Jaincoaren deyic gabe eliz-egoitza artzen duenac gaizqui eguingo al du?*

E.—Eliz-egoitza Jaincoaren deyic gabe artzen duenac guztiz gaizqui eguingo du, ta condenatzeco zorian jartzen da.

G.—*Zer eguinquizun dituzte cristabac orden sagraduetara deituac izan diradenganontz?*

E.—Cristabac bear dute: 1.<sup>º</sup> Guraso diranac beren semeai ascatuac utzi Jaincoaren deya jarraitzeco; 2.<sup>º</sup> Bere Elizari artzai on ta languille arduratsuac eman deguijquiola Jaunari erregutu, eta ontarakoše ipiñiac dira lau-aldietaco barauac, eta 3.<sup>º</sup> Beguirune aundi bat izan ordenen bidez Jaincoaren lanetara consagra-tu diranai.

## ZORTZIGARREN BURUA.

### EZCONTZAZ.

G.—*Zer da Ezcontzaco sacramentua?*

E.—Ezcontza da Jesucristo gure Jau-nac eguindaco sacramentu bat, guizon ta emacumearen artean elcartasun santu betico bat ipintzen duana, santuqui elcar

maitatzeko ta cristau leguean beren semeac azitzeco grazia emanaz.

G.—*Bai al dauca ezcontza deritzayon sacramentuac adirazcai berezien bat?*

E.—Ezcontzaco sacramentuac adirazten du Jesucristo ta bere emazte ta gure **Ama** maite Eliza santuaren elcartasuna.

G.—*Jaincoaren grazian egon bear al dute Ezcontzaco sacramentua artzen dutenac?*

E.—Bai Jauna, Ezcontzaco sacramentua artzen dutenac Jaincoaren grazian egón bear dute artzeracoan; bestela donauste bat eguiten dute.

G.—*Nola eguiten da Ezcontza?*

E.—Cristau artean Ezcontza bear bezala artzen da Eliza Santuac aguintzen duan arauz.



# BOSGARREN ZATIA

---

*Jaincoaganontzco Birtuteac.*

---

## BURU BACARRA.

### 1.º §. Fedeaz.

G.—*Zein dira cristabac salbatzeco bear dituan birtuteac?*

E.—Cristabac salbatzeco bear dituan birtuteac iru dira: Fede, Esperantz eta Caridadea.

G.—*Fedeaz zer da?*

E.—Fedeaz da gure animan ezartzen zaigun zeruticaco birtute bat, eta bere bidez Jaincoaren itzetan indar artuaz, sinnen degu Arc aguertu eta Elizaren bidez sinisteko eracusten diguna.

G.—*Nondic daquizquiagu Jaincoac aguertu dituan eguiac?*

E.—Jaincoac aguertu dituan eguiac, ezin oquer eracutsi ditzaquean Eliza santuaren bidez daquizquiagu; au da, Pedro santuaren ondorengo Aita Santuen bidez eta Apostoluen oñordeko Gotzayen bidez ayei Jesucristoc berac eracutsi zizcate-laco.

G.—*Aita Santua utsiqueziña al da?*

E.—Bai Jauna, Aita Santua utsiqueziña da, Eliza bezelaše, cristau guzien Artzai ta Eracusle danez fedo edo oiturai dagozquien eguiac erabaquitzen dituanean.

G.—*Irichi al quintzaque guc, Jaunac aguertutaco egui guztiac?*

E.—Ez Jauna, guc ezin quintzaque irichi Jaunac aguertutaco egui guztiac, fedeco egui batzuec misterio diralaco.

G.—*Zer dira misteriyoac?*

E.—Misteriyoac dira gure ezagüeraz goitic dauden fedeco eguiac.

G.—*Zergatic sinistu bear ditugu fedeco eguiac?*

E.—Jainco utsiqueziñac aguertu ta Elizaren bidez sinisteco eracutsi dizquigulaco.

G.—*Naicoa izango al da salbatzeco batetan eta nastuan fedeco egui guztiac sinistea?*

E.—Salbatzeco ez da naicoa batetan eta nastuan fedeco egui guztiac sinistea: Jaincoaren batasun ta irutasuna, eta gure Salbalearren araguitze ta eriotza bezelaco eguiac guztioc bear-bearrez fedo bereziz ta banaroz sinistu bear ditugulaco.

G.—*Non daude Jaincoac Eliza santuari aguertutaco eguiric garayenac?*

E.—Jaincoac aguertutaco eguiric gara-yenac Credoa deitzen diogun Apostoloen laburgoan daude.

**2.<sup>en</sup> §. Esperantzaz.**

G.—*Zer da Esperantza?*

E.—Esperantza da gure animan Jaincoac ezartzen duan zeruticaco birtute bat, eta onen bidez irichi uste ditugu Jaincoac bera serbitzen dutenai aguindu dien betico bizitza, ta au iristeco bear ditugun bideac.

G.—*Zergatic irichi uste bear ditugu Jaunagandic betico bizitza ta artaraco bear diran bideac?*

E.—Uste quintzaque Jaunagandic betico bizitza ta artaraco bideac, Jaincoac Jesucristo gure Jaunaren irabaziecatic bera gogoz serbitzen dutenai aguindu ditzelaco, eta badaquigu Jaunac bere zintzotasun ta guzialtasunarequin aguindutacoa osatzen duala.

**3.<sup>en</sup> §. Caridadeaz.**

G.—*Caridadea zer da?*

E.—Caridadea da Jaincoac gure animan ezartzen duen zeruticaco birtute bat, eta berarequin maitatzen degu Jaincoa berez gauza guziez gain, eta urcoa

gure burua bezela Jaincoaren maitetasunez.

G.—*Zergatic maite izan bear degu Jaincoa?*

E.—Maite izan bear degu Jaincoa guzizco ontasuna, neurriric gabe on eta osoa dalaco, ta maitatze ori berac aguindu digulaco, ta beragandic artzen ditugun ontasun ugariyecatic.

G.—*Zergatic maitatu bear degu urcoa?*

E.—Urcoa Jaincoaren maitetasunagatik, berac aguintzen digulaco, ta guizon guztiac bere iduri diralaco maitatu bear degu.

G.—*Gure etsayac ere maitatzera beartuac al gaude?*

E.—Bai Jauna, gure etsayac maitatzera ere beartuac gaude, oyec berebat gure urcoac diralaco, ta gañera Jesucristoc onela aguindu digulaco.

#### 4.<sup>en</sup> §. Fede, Esperantz ta Caridadezco birtutien eguiquera.

G.—*Fede, Esperantz eta Caridadezco eguintzac eguin bear al ditugu?*

E.—Bai Jauna, ezagüerara irichi ezquiero eguin bear ditugu Fede, Esperantz eta Caridadezco eguintzac: iltzeco zorian arquitzean, bizi gueran artean maiz, eta

batez ere tentapenen bat garaitu, edo cristabaren bearren bat betetzeko.

G.—*Ondo eguiten al du Fede, Esperantz eta Caridadezco eguintzac maiz eguiten dituanac?*

E.—Bai Jauna, chit ondo eguiten du Fede, Esperantz ta Caridadezco eguintzac maiz eguiten dituanac, bada maiz eguiñaz: 1.<sup>º</sup> cristabac errazago gordetzen ditu birtute ain bear oyec; 2.<sup>en</sup> gueitu ta sendotzen ditu bere biyotzean; 3.<sup>en</sup> aguerzen ditu, ta 4.<sup>en</sup> irabazten ditu barcapen asco.

G.—*Naicoa al da eguintz oyec aoz aguertzea?*

E.—Ez Jauna, ez da naicoa eguintz oyec aoz aguertzea, baizican barrendic arretaz eta gogoz lagundu bear zayete.

G.—*Gure indar bacarrez eguin al guintzaque eguintz oyec eta cristabaren besteren batzuec?*

E.—Ez, ezin guintzaque gure indar bacarrez eguin, baizic Jaincoac biotzez escatzen duanari beti ematen dion grazia bear degu.

G.—*Fede, Esperantz eta Caridadezco Jaincoaganontzco birtutietan zein da aundien ta onena?*

E.—Caridadea da Jaincoaganontzco birtutietan aundien ta onena, santutzeco

grazia beti berequin duana, ta Jaincoare-  
quin espiritz bat eguiñic gloriraco ira-  
baziac dacarzquiguna.

G.—*Zer da Caridadearen arguibidea?*

E.—Caridadearen arguibidea da Jain-  
coaren aguienteac gordetzea ta erruquizco  
eguintzac eguitea.

G.—*Zenbat dira erruquizco eguintzac?*

E.—Erruquizco eguintzac amalau di-  
ra: zazpi gorputzari, ta zazpi animari da-  
gozquitenac.

G.—*Gorputzari dagozquion erruquizco  
eguintzac zein dira?*

E.—Gorputzari dagozquion erruquizco  
eguintzac dira: gese danari jaten ematea;  
egarri danari edaten ematea; billotsic  
dagoana jaztea; bidaria ostatuz artza;  
gañoac icustea; loturic daudenac asca-  
raztea; ildacoac lurperatzea.

G.—*Animari dagozquion erruquizco  
eguintzac zein dira?*

E.—Animari dagozquion erruquizco  
eguintzac dira: bear duanari iritzi ona  
ematea; ez daquienari eracustea; bide-  
guetua zuzentzea; biotz-illundua dagoana  
alaitzea; esan-eguin charrac barcatzea; go-  
gaicarritzen gaituztenac ondo eramatea;  
ta Jaunari bizi ta ildacoaz otoitz eguitea.

BARAU TA ARAGUI EZ JATEAZ  
53-GARREN ORRIARI GAÑERATZE BAT.

---

España ta bere mendean dauden errietan, Gurutzadako buldarequin confesoreta sendallearen iritziz araguia jan diteque barau-egunetan ta Garizuma guztian.

Apaiz ez diranac artu ditzaquete Garizuman beren gogora arraultz eta esne gauzac.

Apaiz ez diranac, araguien Barcapena artuaz, edo beartsuac badira, Pater noster ta Agur Mari bat errebatuaz, egunero araguia jan dezaquete Auster eguna, Garizumako ostiral guztiak; Asteazquen, Ostegun, Ostiral ta Larunbat santu, Pentecostes aurre-eguna, Pedro ta Paulo Santuena, Garagar-illaren ogueita zortzia, gure Ama Birjiñaren Asunziocoa, Aboztoaren amalaua, ta Egüerri aurre-eguna, Abenduaren 24-ean, quendu ezquiero.

Debecatua dago, araguia jaten graziz uzten zayenentzat ere, naiz Espanan ta naiz Ameriquetan, aragui ta arraya jatordu batean nastutzea, bai barau egunetan, eta bai Garizumako igandietan.

Buldac ematen diran garayan, urtero

berritu bear dira, beren barcapenac edu-  
qui nai izatera. Araguria jateco graziz ba-  
liatu nai dutenac Gurutzadako buldaz  
gañera araguiarena bear dute, beartsuac  
ezpadira.

A. M. D. G.



**Erromaco Misalaren araura meza esaten  
duten apaizai laguntzeco era:**

**Apazac.** In nōmine Patris, et Filii, Spir-  
itus Sancti. Amen. Introibo ad Altare Dei.

**Laguntzalleac.** Ad Deum qui lātificat  
juventutem meam.

**Ap.** Jūdica me, Deus, et discerne cau-  
sam meam de gente non sancta, ab homi-  
ne iniquo et doloso erue me.

**Lag.** Quia tu es, Deus, fortitudo mea,  
quare me repulisti? et quare tristis ince-  
do, dum affligit me inimicus?

**Ap.** Emitte lucem tuam et veritatem  
tuam, ipsa me deduxerunt, et adduxe-  
runt in montem sanctum tuum et in ta-  
bernacula tua.

**Lag.** Et introibo ad altare Dei ad Deum  
qui lātificat juventutem meam.

**Ap.** Confitebor tibi in cithara, Deus  
Deus meus, quare tristis es anima mea,  
et quare conturbas me?

**Lag.** Spera in Deo, quoniam adhuc  
confitebor illi, salutare vultus mei et Deus  
meus.

**Ap.** Gloria Patri, et Filio, et Spiritui  
sancto.

**Lag.** Sicut erat in principio, et nunc  
et semper, et in sēcula sēculorum.  
Amen.

*Ap.* Introibo ad Altare Dei.

*Lag.* Ad Deum qui lætificat juventu-  
tem meam.

*Ap.* Adjutorium nostrum in nōmine  
Domini.

*Lag.* Qui secit cœlum et terram.

*Ap.* Confiteor Deo omnipotenti etc, et  
vos fratres orare pro me ad Dominum  
Deum nostrum.

*Lag.* Misereatur tui omnipotens Deus,  
et dimissis peccatis tuis, perducat te ad  
vitam æternam.

*Ap.* Amen.

*Lag.* Confiteor Deo omnipotenti, Bea-  
tæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli  
Archangelo, Beato Joanni Baptista, sanc-  
tis Apostolis Petro et Paulo, omnibus  
Sanctis et tibi, pater, quia peccavi nimis  
cogitatione, verbo, et opere, mea culpa,  
mea culpa, mea maxima culpa. Ideo pre-  
cor beatam Mariam semper Virginem,  
beatum Michaelem Archangelum, bea-  
tum Joannem Baptistam, sanctos Apos-  
tolos Petrum et Paulum, omnes Sanc-  
tos, et te, Pater, orare pro me ad Domi-  
num Deum nostrum.

*Ap.* Misereatur vestri omnipotens Deus,  
et dimissis peccatis vestris, perducat vos  
ad vitam æternam.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens, et misericors Dominus.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Deus, tu conversus vivificabis nos.

*Lag.* Et plebs tua lætabitur in te.

*Ap.* Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

*Lag.* Et salutare tuum da nobis.

*Ap.* Domine, exaudi orationem meam.

*Lag.* Et clamor meus ad te veniat.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Christe eleyson.

*Ap.* Christe eleyson.

*Lag.* Christe eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

### Epistolaren ondoren.

*Lag.* Deo gratias.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sequentia Sancti Evangelii secundum, etc.

*Lag.* Gloria tibi, Domine.

### Lenbizico Evangelioaren ondoren.

*Lag.* Laus tibi, Christe.

*Ap.* Orate fratres.

*Lag.* Suscipiat Dóminus sacrificium de mánibus tuis ad laudem et gloriam nómminis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ sanctæ.

*Ap.* Amen.

### Prefacioan.

*Ap.* Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Dóminus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sursum corda.

*Lag.* Habemus ad Dóminum.

*Ap.* Gratias agamus Dómino Deo nostro.

*Lag.* Dignum et justum est.

### Pater noster-aren ondoren.

*Ap.* Et ne nos inducas in tentationem.

*Lag.* Sed libera nos á malo.

*Ap.* Pax Domini sit semper vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Ite, Missa est *edo* Benedicamus Domino.

*Lag.* Deo gratias.

*Ap.* Requiescant in pace.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Benedicat vos omnipotens Deus, Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum Spiritu tuo.

*Ap.* Sequentia sancti Evangelii secundum etc.

*Lag.* Gloria tibi, Domine.

### Azqueneco Evangelioaren ondoren.

*Lag.* Deo gratias.

LAUS DEO.

---



## MARIA CHIT SANTUAREN LETANIAC.

Kyrie, eleyson.  
Christe, eleyson.  
Kyrie eleyson.  
Christe, audi nos.  
Christe, exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus,  
Fili Redemptor mundi Deus  
Spiritus Sancte Deus,  
Sancta Trinitas unus Deus,

Sancta María,  
Sancta Dei génitrix,  
Sancta Virgo Vírginum,  
Mater Christi,  
Mater divinæ gratiæ,  
Mater purissima,  
Mater castissima,  
Mater inviolata,  
Mater intemerata,

Miserere nobis.

Ore pro nob

Mater immaculata,  
Mater amabilis,  
Mater admirabilis,  
Mater Boni Consilii,  
Mater Creatoris,  
Mater Salvatoris,  
Virgo prudentissima,  
Virgo veneranda,  
Virgo prædicanda,  
Virgo potens,  
Virgo clemens,  
Virgo fidelis,  
Speculum justitiae,  
Sedes Sapientiae,  
Causa nostræ lætitiae,  
Vas spirituale,  
Vas honorabile,  
Vas insigne devotionis,  
Rosa mystica,  
Turris Davídica,  
Turris ebúrnea,  
Domus aúrea,  
Fœderis arca,  
Janua Cœli,  
Stella matutina,  
Salus infirmorum,  
Refugium peccatorum,  
Consolatrix afflictorum,  
Auxilium christianorum,  
Regina Angelorum,



Ora pro nobis.

Regina Patriarcharum,  
Regina Prophetarum,  
Regina Apostolorum,  
Regina Mártirum,  
Regina Confessorum,  
Regina Vírginum,

Ora pro nobis.

Regina Sanctorum omnium,

Regina sine labe originali concepta,

Regina sacratissimi Rosarii,

W. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

R. *Parce nobis, Domine.*

W. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

R. *Exaudi nos, Domine.*

W. Agnus Dei qui tollis peccata mundi.

R. *Miserere nobis.*

W. Ora pro nobis sancta Dei géni-trix.

R. Ut digni efficiamur promissiónibus Christi.

### OREMUS.

Gratiam tuam quæsumus, Dómine, méntibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante, Cristi Filii tui Incarnationem cognóvimus, per Passionen ejus et Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dóminum nostrum. Amen.



A  
Z